



Estrategia Navarra de
Educación Ambiental
para la Sostenibilidad

Iraunkortasunerako
Ingurumen Hezkuntzaren
Nafarroako Estrategia

IRAUNKORTASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZAREN NAFARROAKO ESTRATEGIA ENEAS 2030

EDUKIA

EGITEN DUGUNA BIRPENTSATU BEHARRA	4
1/ ABIAPUNTUKO EGOERAREN AZALPENA.....	5
1.1 AURREKARIAK	6
1.1.1 ORAIN 20 URTE LUZE ABIATUTAKO PROZESUA.....	6
1.1.2 ESPAINIAKO INGURUMEN HEZKUNTZAREN LIBURU ZURIA.....	6
1.1.3 INGURUMEN HEZKUNTZAREN NAFARROAKO ESTRATEGIA (ENEA) ETA 2001-2006 EKINTZA PLANA	6
1.1.4 INGURUMEN HEZKUNTZARAKO TRESNAK: NAFARROAKO INGURUMEN ARLOKO BALIABIDEEN ZENTROA (CRANA).....	7
1.2 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA KLIMA ETA INGURUMEN LARRIALDIAREN MENDEAN	10
1.2.1 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA EGUNGO TESTUINGURUAN	10
1.2.2 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA 2030 AGENDAN.....	10
1.2.3 HEZKUNTZA PROPOSAMEN BERRIA ESPARRU FORMALERAKO: HLOALO	11
1.2.4 JIH-REN ABIAPUNTUKO EGOERA	12
1.3 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA GOBERNUAREN EKINBIDEAN	15
1.3.1 INGURUMENAREKIN ETA JASANGARRITASUNAREKIN LOTUTAKO POLITIKA PUBLIKOAK.....	15
1.3.2 INGURUMEN HEZKUNTZA NAFARROAKO GOBERNUAK EDO HAREN LANERAKO ERAKUNDEEN BIDEZ GARATUTAKO PROIEKTU EUROPARRETAN	22
1.3.3. INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN PROGRAMA ESPEZIFIKOAK JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZARAKO ETA BOLUNTARIOTZARAKO ...	24
1.3.4 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZAKO PIRINIOETAKO ESTRATEGIA	26
1.3.5 NAFARROAKO INGURUMEN HEZKUNTZAKO BESTE HAINBAT ERAGILE ETA EKIMEN	27
2/ MISIOA, IKUSPEGIA, HELBURU OROKORRAK ETA OINARRIZKO PRINTZIPIOAK.....	28
3/ JARDUKETA-ARDATZAK, HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA NEURRIAK.....	30
4/ EKINTZA PLANAK, GOBERNANTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA ETA FINANTZAKETA	36
AKRONIMOEN ZERRENDA	38
GLOSARIOA	39

EGITEN DUGUNA BIRPENTSATU BEHARRA

Munduak egoera konplexua bizi du ingurumen nahiz gizarte aldetik, eta horrek ezinbestean eramaten gaitu planetarekin eta ingurunearekin ditugun harremanak berritik planteatzera. Ebidentzia zientifikoa gero eta sendoagoa da -aldian behin ekartzen digute gogora, adibidez, Klima Aldaketaren Gobernuarteko Panela (IPCC) delakoaren txostenek- eta argi erakusten du premia larrikoa dela funtsezko zenbait gai lantzea, klima eta ingurumen aldaketaren testuinguruan, esate baterako, klima aldaketa arintzea -eta haren ondorioetara egokitzea-, ekosistemen degradazioa eta biodibertsitatearen kontserbazioa, erronka demografikoa, energia nahiz elikadura arloetan egin beharreko trantsizioa, edo ekonomia zirkularrak eskaintzen dizkigun alternatibak. Gai horiei guztiei heldu behar die Jasangarritasunerako Ingurumen Estrategiak, inaktuak arindu eta gure ingurunearekiko harremana hobetzea erraztuko diguten konponbideak abiarazten lagunduko badu.

Gauzak aldatu dira, orobat, mundu mailako krisiei erantzuteari dagokionez. **Nazio Batuen Erakundearen Parisko Akordioa**¹ eta **Garapen Jasangarriaren 2030 Agenda**² mugari garrantzitsuak dira, eredu ekonomikoa aldatzea helburu izan behar duen agenda global berria. Horretarako, eskura ditugu **Garapen Jasangarriko Helburuak**³, pertsonen arteko berdintasuna, planetaren babesa eta gizateriaren ongizatea bermatzea dituela xede nagusiak.

Berrikiago, 2021ean, **Garapen Jasangarriko Hezkuntzari buruzko Berlingo Adierazpenak**⁴ konpromisoan lotzen ditu UNESCOko Estatu kideak, ekintzara pasatzeko, klimaren krisia, biodibertsitatearen galera masiboa, kutsadura, gaixotasun pandemikoak, muturreko pobrezia eta desberdintasunak, gatazka bortitzak eta ingurumen, gizarte eta ekonomia arloetan bizi ditugun bestelako krisiei helduz, planetaren bizitza arriskuan dagoelako; eta ingurumen hezkuntza osagai gakoia izan dadin 2025eko ikasketa planetan.

Estatu mailako esparruan, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak -Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren laguntzaz-, **Espaniako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Plana (PAEAS)**⁵ prestatu du, Jasangarritasunerako Ingurumen Estrategiari buruzko dokumentuak prestatu eta gauzatzeko erkidego mailan.

Hezkuntzari buruzko abenduaren 29ko 2/2006 Lege Organikoak (HLOALO)⁶, berriz, 2030 Agenda txertatzen du hezkuntza sisteman, eta hezkuntzak duen funtsezko rola garapen jasangarria sustatzeko, eta hezkuntza arloko hainbat helburu jasotzen ditu, 2015eko Klimari buruzko Parisko Akordioarekin lotuak.

Eta **Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Pirinioetako Estrategiak (EPEAS)**, Nafarroaren parte-hartze gogotsua izan duenak, balioan jartzen du Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza, kudeaketarako tresna gisa, Pirinioetako jasangarritasun helburuak lantzea errazteko.

Testuinguru horretan sortzen da **Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Nafarroako Estrategia 2030 (ENEAS 2030)**, testuingurua, gidalerroak eta lanerako esparru bat eskaintzeko asmoz, planak eta programak diseinatu eta abian jartzeko, Nafarroako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza lantzeko, 2030era bitartean.

¹ <https://unfccc.int/es/process-and-meetings/the-paris-agreement/el-acuerdo-de-paris>

² <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>

³ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-development-goals/>

⁴ <https://en.unesco.org/sites/default/files/esdfor2030-berlin-declaration-es.pdf>

⁵ https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/plan-accion-educacion-ambiental/plandeacciondeeducacionambientalparalassostenibilidad2021-202508-21_tcm30-530040.pdf

⁶ https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-17264

1/ ABIAPUNTUKO EGOERAREN AZALPENA

Estrategia prestatzeko prozesuaren abiapuntua Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren gaineko Nafarroako diagnostiko bat izan zen, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Pirinioetako Estrategiaren (EPEAS) eta ADN⁷ mugaz haraindiko proiektuaren esparruan egindakoa.

Diagnostiko horren barruan sakoneko elkarrizketak egin ziren, eta Nafarroako jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzaren egoerari buruzko galdetegi bat zabaldu zen, Nafarroako ingurumen hezkuntzarekin lotura duten hainbat sektoreri kontsultak eginez.

Sektoreak	Jasotako inkestak
INGURUMEN HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK, EKIPAMENDUAK, ENPRESAK ETA SAREAK	18
PARTZUERGOAK, ENPRESA PUBLIKOAK ETA MANKOMUNITATEAK	17
TURISMOKO ETA AISIALDIKO ENPRESAK	16
KOLEKTIBOAK ETA GKE	9
NAFARROAKO GOBERNUKO DEPARTAMENTUAK	6
PARTZUERGOAK-TOKIKO GARAPEN AGENTZIAK	6
UNIBERTSITATEAK	2
IKASTETXEAK ETA SAREAK	2
SINDIKATUAK	2
UDALEZ GAINDIKO ERAKUNDEAK	1
UDALAK	1
GUZTIRA	80

ENEAS 2030 lehenengo zirriborroa prestatzeko kontuan hartu dira, orobat, bai EPEASen beraren edukiak, bai eta, ezinbestez, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Planean (PAEAS, Espainiako Gobernuak berriki onetsitakoa) jasotako edukiak ere. Gainera, azken urteetan hainbat autonomia erkidegotan prestatutako dokumentu estrategikoak ere aztertu dira.

Azterketa horretatik eta Nafarroako Gobernuak 1998tik ingurumen hezkuntzan egindako lanari buruzko dokumentuen azterketatik abiatuta, Estrategiaren (ENEAS 2030) lehenengo zirriborro bat prestatu zen, batez ere, Nafarroako Gobernutik sustatu beharreko lan ildoak jasotzeko asmoz; baina horrez gain, hainbat gomendio eta orientabide ere jasotzen ditu, beste sektore eta eragile batzuentzat lagungarriak izaten ahal direnak.

ENEAS 2030 lehenengo zirriborro horrek parte-hartze publikoa izan zuen, bai programatzen diren topaketen bidez, aurrez aurrekoak nahiz online bidez, bai Gobernu Irekiko Atariaren bidez. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Estrategia honen bultzada eta lidergoa bere gain hartuko ditu, baina prestatzeko eta abian jartzeko lana prozesu anitz eta zehar-lerro gisako baten bidez eginen da, administrazio publikoen eta JIHarekin lotura duten gizarte eragile eta sektoreen inplikazioa atxiki nahian.

⁷ Diagnostikoa kontsultatzeko edo deskargatzeko eskuragarri dago [esteka honetan](#); EPEASetik sortu ziren lerro estrategikoak, berriz, beste honetan: [hiperesteka](#).

6/ DIAGNOSTIKOA

Estrategia honen osagarri, Ekintza Planak antolatuko dira hurrenez hurren, zehaztasun handiagoz emateko aldi bakoitzeko jarduketa larroak, lehenik eta behin, 2023-2025 aldirako.

1.1 AURREKARIAK

1.1.1 ORAIN 20 URTE LUZE ABIATUTAKO PROZESUA

1998an Iruñean Ingurumen Hezkuntzaren III. Jardunaldiak -500 lagunetik goiti parte-hartzaileekin- mugarri izan ziren Nafarroan ingurumen hezkuntzak zuen garrantziari eta hedapenari dagokienez, lurraldean aldaketa handia gertatzen ari zelarik, aldi berean. Gero eta argiago ikusten zen ingurumen arazoei heldu behar zitzaizela gizarte eta hezkuntza ikuspegi oso batetik, sektore formalera modu eskusiboan orientatzen zen ikuspegitik harago, eta funtsezko lau tresnaren inguruan egituratu behar zela: informazioa eta komunikazioa; ingurumen arloko prestakuntza eta gaikuntza; parte-hartzea eta ikerkuntza.

Jardunaldi horien inguruan, ekimen garrantzitsuak sortu ziren, besteak beste, Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria, Ingurumen Hezkuntzaren Nafarroako Estrategia (ENEA) edo, aurrerago, Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa (CRANA) eratzea, guztiak ere eredu garriak izan baitira ingurumen hezkuntza lantzeko modu berri horretan, bai Nafarroan bai estatu mailan ere, eta gure irudiko, kontuan hartu beharreko funtsezko aurrerakariak ere izan baitira; horregatik, hemen berrituko ditugu haien osagai nagusietako batzuk.

1.1.2 ESPAINIAKO INGURUMEN HEZKUNTZAREN LIBURU ZURIA

Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria⁸ prestatzeko prozesuak agerian jarri zuen eztabaida publikoa behar zela, ingurumen hezkuntzaren inguruko ideia berriak integratzeko modu egokienaren inguruan. Gogoe-ta lantaldeetan antolatu zen, zenbait gairen inguruan, besteak beste, ingurumen boluntariora, parte-hartzea, hezkuntzaren eginkizuna kudeaketarako tresna gisa, ingurumen gaien presentzia unibertsitatean, ikastetxee-tako ekoauditoreak edo programen kalitatea.

Liburu Zuriaren jasotzen ziren azken urte haietan ingurumen hezkuntzaren inguruan izan ziren nazioarteko konfe-rentzietatik sortutako planteamenduak eta gomendioak, eta halaber, ikuspegi, eragile sustatzaile eta hartzaile talde berriak inguratzen ari zen jardunbide baten azterketa.

Liburu Zuriaren 'Oinarritzko Printzipioak' eta 'Tresnak' kapituluek eragin handia izan dute Ingurumen Hezkuntzak Estatu osoan izan duen garapenean eta Erkidegoetako Ingurumen Hezkuntzako Estrategien⁹ antolamenduan. Haren edukia egun ere indarrean da, eta oraindik ere garrantzitsua da ulertzeko 'zertaz ari garen ingurumen hezkuntzaz ari garenean'.

1.1.3 INGURUMEN HEZKUNTZAREN NAFARROAKO ESTRATEGIA (ENEA) ETA 2001-2006 EKINTZA PLANA

Handik denbora gutxira, Ingurumen Hezkuntzaren Nafarroako Estrategia (ENEA) sortzeko prozesua abiatzen zen. Ia bi urtez, gizarteko sektore desberdinetako hainbat erakunde¹⁰ Foru Komunitateko ingurumen hezkuntzaren diagnostikoa lantzen aritu ziren, etorkizunerako egokienak ziren norabideak planteatzen, jasangarritasunaren bidean aurrera egiteko gizarte eta hezkuntza arloetako tresnetatik. Lan horren funtsezko zati bat jaso dago ENEAren dokumentuan, han biltzen baitziren diagnostikoa eta ingurumen hezkuntzak aintzat hartu behar zituen

⁸ https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/documentos/blanco_tcm30-77431.pdf. Horren bertsio laburtua, 'Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria hitz gutxitan', hemen dago eskuragarri: https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/ceneam/recursos/documentos/pocas_tcm30-77432.pdf

⁹ Ikus, adibidez, <https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/pag-web/documentos/estrategias-ea.aspx>

¹⁰ Eskualdeko administrazioa, enpresa publikoak, tokiko administrazioa, enpresa pribatuak eta enpresarien elkarteak, sindikatuak, lanbide elkargoak, komunikabi-deak, ingurumen hezkuntzako enpresak, profesionalak eta ekipamenduak, herritarren elkarteak, hezkuntza sistema formala eta unibertsitateak.

gidalerro estrategikoak; beste zati bat, berriz, 2001-2006 Ekintza Planean jaso zen, sektore bakoitzean aldi horretarako planteatzen ziren helburuak eta ekintza lerroak islatzen baitziren.

Ekintza Planak jasotzen zituen Nafarroako ingurumen hezkuntzari buruzko ekintzak eta haien programazioa 2001-2006 aldirako. Plangintza hura era honetan aurkeztu zen:

- Sektorearen plangintza epe ertain eta luzera (2001-2006)
- Proiektu zehatzen plangintza epe laburrera (2001-2002)

Ekintza Plan horren helburua zen ingurumen hezkuntzako proiektuak eta programak ezagutu edo aurrera eramane nahi zituzten erakundeek eta gainerako instituzio nahiz pertsonen tresna baliagarri bat izatea. Ekintza lerroak garatu ziren hamar sektoretarako:

- Eskualdeko administrazioa eta enpresa publikoak
- Toki administrazioa
- Hedabideak
- Enpresa pribatuak eta enpresarien elkarteak
- Sindikatuak
- Lanbide elkargoak
- Ingurumen hezkuntzako enpresak, profesionalak eta ekipamenduak
- Herritarren elkarteak
- Hezkuntza sistema (unibertsitateaz kanpokoa)
- Unibertsitateak

Gainera, gizarte sektore desberdinen arteko ekintza bateratuak edo koordinatuak egiteko eskaerak eta proposamenak identifikatu ziren, Ekintza Planean Sektore arteko Konpromisoak deitu zirenak.

1.1.4 INGURUMEN HEZKUNTZARAKO TRESNAK: NAFARROAKO INGURUMEN ARLOKO BALIABIDEEN ZENTROA (CRANA)

ENEA abian jartzeko tresnetako bat Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa sortzea izan zen, erakunde horren partaide zirela Ingurumena, Lurralde Antolamendua eta Etxebizitza Departamentua eta haren enpresa publikoak: Ingurumen Kudeaketa, Nafarroako Mintegiak eta Basoberritzeak eta Nafarroako Industria Ingurumena.

Zentroa 2003an hasi zen funtzionatzen eta lanean aritu zen 2014an itxi zen arte. CRANAren helburu nagusia zen, ingurumen gaietan, administrazioen eta gizarteko sektore desberdinen arteko gizarte erantzukizun partekatua sustatzea, Nafarroako Gobernuaren ingurumen politiken esparruan. Haren misioa izan zen Nafarroako jasangarritasunerako bidean aurrera egitea erraztea, ingurumen erantzukizunaren inguruan gizartearen eta instituzioen jarduketak sustatuz eta artikulatuz, ingurumen hezkuntzaren bidez. Topaleku bat izan zen, gizarte eta ingurumen arloko ekimenak sustatzeko, eta trukaketa eta koordinazio leku bat ere bai, erantzunkidetasunaren printzipiotik jasangarritasunaren alde lanean ari ziren pertsona nahiz entitate guztientzat.

CRANAren lanaren orientazioari dagokionez, ingurumen hezkuntzak funtsezko papera betetzen zuen, zehar-lerro gisa lantzen baitzen, sustatzen ziren proiektu nahiz ekimen guztiekiko: prestakuntza eta gaikuntza, komunikazioa eta sentsibilizazioa, berrikuntza eta ikerkuntza soziala, eta modu oso berezian, parte-hartzea, funtsezko tresna baita, ingurumen arloan erantzunkidetasunaren bidetik aurrera egiteko, beharrezkoa den aldaketarako.

CRANAtik aurrera eramaten ziren proiektuen nondik-norakoak labor azaltzeko, haren azken dokumentuan jasotzen ziren lehentasuneko lerroetan era honetako alderdi gako zenbait jasotzen ziren.

8/ DIAGNOSTIKOA

- Nafarroako ingurumen gobernatzaren hobekuntzan laguntzea.
- Herritarren parte-hartzea garatzea.
- Ekonomia eredu jasangarriago baterantz igarotzeko trantsizioa sustatzea.
- Eko-berrikuntza teknologikoaren garapenean laguntzea.
- Ingurumen zerbitzuak ezagutzera ematea.
- Herritarren artean esperientziak sustatzea ingurumen inpaktua murrizteko, kontsumo arduratsua, elkartasuna eta bizimodu eredu aldaketa helburu.
- Ingurumen kudeaketako eta enpresen gizarte erantzukizuneko sistemak erakunde, enpresa eta entitateetan ezartzea sustatzea.

ENEAn eta Zentroaren plangintza estrategikoan jasotako printzipioak eta ekintza lerroak, oraindik ere, gehienak baliagarriak dira, eta garrantzitsua da horiek kontuan izatea Estrategia honetan.

CRANAK prozesu parte-hartzaile bat abiarazi zuen ingurumen hezkuntzako kalitate irizpideak definitzeko, eta horren emaitza izan zen gai horri buruzko erreferentziako dokumentu bat¹¹. Dokumentu hori 2004 eta 2006 bitartean prestatu zuen, Nafarroako Ingurumen Hezkuntzako Estrategiako (Enea) ingurumen hezkuntzako enpresa eta profesionalen sektoretik sortutako lantalde batek, Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroaren (CRANA) eta Nafarroako Ingurumen Hezkuntzako Elkartearen (ANEA) laguntza eta partaidetzarekin.

Dokumentuaren helburua zen «gogoetarako tresna baliagarria izatea, eta eraginkorra, ingurumen hezkuntzako programen eta ekimenen plangintzan, gauzapenean eta ebaluazioan laguntzeko», eta horrez gain, «erreferente baliagarria izatea, ingurumen hezkuntzako programen, proiektuen eta jarduketan kalitatea baloratzeko».

2006-2007an azterketa bat egin zen, Nafarroan Enea abian jarri zenetik ingurumen hezkuntzak izan zuen eboluzioari buruz, eta haren emaitza izan zen jarraibide sorta bat, baliagarriak izaten ahal direnak, orain ere, ENEAS 2030 honen ezarpenerako, eta Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren¹² inguruan abian jartzen ahal diren proiektuetarako:

→ SORMENA ETA BERRIKUNTZA

Konponbideak bilatzeko sormena eta berrikuntza sustatzea eta laguntzea.

→ KALITATEA

Kalitateko ekimenak eta proiektuak garatzea, aurrez behar diren plangintza eta gogoeta eginez, eta baliabide aski ematea, modu egokian aurrera eraman eta ebaluatuak izan daitezen.

→ KOMUNIKAZIOA

Norabide anitzeko komunikazioko kanalak eratzea, konponbideak emateko eremu oso desberdinetatik etorritako ikuspegiak integratuz.

→ EMOZIOA

Ez dira ahaztu behar osagai afektiboak eta emozionalak, eta horiek duten garrantzi berezia, bai ingurumen gaiei buruzko lanean, bai gizarte nahiz lagunarteko harremanetan.

¹¹ Kontsulta eta deskargatzeko eskuragarri hemen: https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/3ADD4149-6024-4969-9567-6DD331BC66FA/82030/guia_calidad_edambiental.pdf

¹² CRANA (2007). Iragana berrikuntza etorkizuna eraikitzeko. Nafarroako ingurumen hezkuntzan ENEA (1999-2007) abiatu zenetik egindako bideari buruzko gogoeta bat. Iruña: CRANA

→ **IKUSGARRITASUNA**

Aldaketa egingarria dela erakusteko aukera emanen duten ekimenetan parte hartzea, ingurumenaren jasangarritasuna eta hobekuntza lantzeko portaerak erakusten dituzten eta ditugun ingurumen adierazleen egiazko aldaketak eragiten dituzten proiektuetan

→ **KONPLIZITATEA**

Gizarte eta ingurumen arloko aldaketaren alde, edozein esparrutatik, lanean gogoz ari diren entitate eta pertsona guztien ahalegina errespetatzea, adoretzea eta sustatzea.

→ **SAREKO LANA**

Sareen finkapenean eta esku-hartze eta lan kolektiboen ereduaren ezarpenean gogoz aritzea.

→ **PARTE HARTZEA**

Ingurumen gaia norbanakoen nahiz kolektiboen erabaki guztietan kontuan har dadin lanean gogoz aritzea, ongi informatutako parte-hartzea zabalduz, plangintzan eta kudeaketan erabakiak hartzeko metodo gisa.

→ **GOBERNANTZA**

Espazio publiko, pribatu eta komunitarioen arteko bitartekaritza guneak sustatzea, zubiak, konexioak eta loturak gero eta gehiago eta gero eta sendoagoak izan daitezzen.

ENEAREN ebaluazioko dokumentuak jasotzen zituen, gainera, hainbat ondorio, eta haietako batzuk azpimarratuko ditugu, bereziki baliagarritzat jotzen ditugulako, ENEAS 2030 estrategia ezartzeko prozesurako:

- **Sektore arteko desberdintasun nabarmenak detektatu ziren, ingurumen gaien integrazioan egindako aurrerapenari eta tresna sozialekiko lanari zegokienez.**
- **ENEAREN beraren kontzeptua eta identitatea (logoa, adibidez) gero eta gutxiago erabiltzen hasi ziren aldi hartan, ekimen eta jarduketa berriak sortzen ari baitziren, eta horiek ere identitate eta irudi propioak behar zituztelako. Neurri handi batean, horrek defizita sortu zuen prozesuaren ulergarritasun orokorrean, eta hainbat sektoreren ikuspegitik, 2003 eta 2007 bitartean gertatutakoa eta ENEA gauza desberdinak ziren.**
- **Oso modu positiboan baloratu zen lan kolektiboa motibazio, informazio eta esperientzia trukaketa, koordinazio eta taldeko gogoetarako tresna gisa.**
- **Abian jarritako proiektu eta ekimenetako batzuek oihartzun handia izan zuten Nafarroatik kanpo.**
- **Funtsezkotzat jotzen zen ahalegin handiagoa egitea sareko lana ardaztu eta egituratzeko, ezinbesteko tresnatzat jotzen baitzen, kalitatea hobetzeko, norbanakoen eta taldeen ekimenak ezagutarazteko eta egiazko aldaketak eragiteko.**
- **Parte-hartzea finkatzen jarraitu behar zen, ezinbesteko tresna baita, jasangarritasun arloko erabakiak hartzeko.**
- **Beharrezkotzat jotzen da komunikazio tresna berrietan aurrera egitea, norabide anitz lantzea eta sormena osagai gakoak izan daitezzen.**
- **Argi ikusi zen noraino den garrantzitsua aldaketa egin daitekeela eta ingurumen adierazle garrantzitsuenen joera aldatu daitekeela erakusten duten proiektuak sortzea.**
- **Beharrezkoa ikusten zen bidean laguntzeko baliabide gehiago hornitzea (teknikoak, prestakuntzakoak, aholkularitzakoak nahiz ekonomikoak) ingurumen gaietan eta/edo gizarte tresnekin lanean ari ziren erakundeentzat.**

1.2 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA KLIMA ETA INGURUMEN LARRIALDIAREN MENDEAN¹³

1.2.1 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA EGUNGO TESTUINGURUAN

Klima eta ingurumena larrialdian diren honetan, non gure herrialdea bereziki kaltebera den, kokapen geografikoagatik eta ezaugarri sozioekonomikoengatik, aldaketak egin behar dira ekoizpenaren funtsezko hainbat esparrutan, adibidez, nekazaritzan eta abeltzaintzan, turismoan edo garraioan, klimaren edo biodibertsitatearen zuzeneko mendekoak baitira, eta orobat, segurtasunerako eta ongizaterako funtsezkoak diren beste hainbat alderditan ere.

Gure bizitzaren testuinguruak dagoeneko jasaten ari dira hainbat inpaktu, gero eta handiagoak izanen direnak, eta horrek behartzen gaitu erabaki garrantzitsuek hartzera, baliabideen kudeaketan, jarduera tradizionaletan edo orokorrak diren gizarte ohituretan, eta haietako batzuk aldatzera ere bai. Gaurko belaunaldiok eraldaketa azkarrak eta erabakigarriak bultzatu behar ditugu gizartean erabiltzen ditugun ohiturei, araei eta banakako nahiz taldeko portaerei dagokienez.

Premiazkoa da aldaketa kulturala bultzatzea, eta ekintza koordinatua, kolektiboki saihestezinak eta lehentasunezkoak diren hainbat helbururen inguruan. Eszenario horretan, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza (JIH) ezinbesteko tresna gisa ageri da, modu orekatuan emateko ikuspegi kritikoa eta informazio praktikoa, errealitatea ulertzeko modua aldatzera eramanez gaituzten elementuak eskainiz, eta aldi berean, esku-hartzeko ditugun gaitasunak hobetuz.

Ingurumen eta klima arloko politikei lagunduko dien JIH baten bidean ezin ahaztu dira gizarteak dituen erronken koordinazioa, lankidetzeta eta integrazioa, bereziki, gazteriarri laneko jarduera jasangarri batean hasteko aukera eskaintzea, langileei prestakuntza eskaintzea jasangarritasun estrategien inguruan, populazioa lurraldean banatzeko era orekatuago bat lortzea, edo ingurumen arazoaren erantzunak sortzea.

Beste alde batetik, instituzioen eta gizarte eragileen arteko lankidetzeta gakoa da zailtasunei aurre egiteko eta konponbide sinergikoak bilatzeko arazoei, dagoeneko hondatzen ari baitira hainbat gizarte talde eta lurralde kaltebera, eta horiek parte hartzeko aukera behar dute, beren egoera hobetzeko proposamenetan, trantsizio ekologikoa gizarte arloan bidezkoa izan dadin.

1.2.2 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA 2030 AGENDAN

Garapen jasangarrirako 2030 Agenda da gizarte garaikide garen aldetik eratu dugun esparru erkidea, modu inklusiboan eta jasangarrian aurrera egiteko aukjera emanen digun eredu baterantz. Horretarako, 2030 Agendak garapen jasangarriko 17 helburu zehazten ditu (GJH), eraldatzaileak eta unibertsalak, eta horiek dira Agendaren muina.

2030 Agendak proposatzen du pobrezia ezabatzea munduan, ekintza guztietan jasangarritasuna bermatuko duen planteamendu batetik, eta ekonomia jarriz pertsonen zerbitzura. Horretarako, pertsonen eskubideetatik eta ingurumenarekiko errespetutik eta babesaren ikuspegitik eraikitzen da. Beraz, helburua da oparotasun ekonomikoaren eredu inklusibo eta jasangarria sortzea, eta horren funtsezko osagaiak zehaztea, oinarritzat jarrita pertsonen zaintza, planetaren zaintza eta eredu ekonomiko inklusibo eta jasangarri bat.

Hori guztia egin behar da atzean inor utzi gabe, eta ikuspegi unibertsal batetik, herrialde guztiei erronka berdintasunez planteatzen diena, eta beste alde batetik, banaezina, erakutsiz helburu bakoitza lerrokatua dagoela

¹³ Apartatu honen edukia Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Planetik (2021-2025) atera dira, eta aldatu dira ENEAS 2030 estrategiara egokitzeko.

gainerakoekin, eta ezin direla banaka landuta lortu. Azken buruan, erronka handi bat da, egungo garapen ereduaren eraldatzeko, inklusiboagoa eta jasangarriagoa izan dadin.

Nazio batuen Batzar Orokorrak onetsitako **Gure mundua aldatzea: Garapen Jasangarrirako Agenda 2030** adierazpenak hainbat helburu zehazten ditu; laugarrena hezkuntzan zentratzen da, eta hona zer dioen: «Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta bizi osoan ikasteko aukerak sustatzea denentzat». Helburu hori hainbat xedetan banatzen da, haietako bat 4.7 xedea: «Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, hezkuntzaren bidez sustatuz garapen jasangarria eta bizi estilo jasangarriak, giza eskubideak, genero berdintasuna, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapena, munduko herritartasuna eta kultura aniztasunaren balioespena eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena».

Horrenbestez, garapen jasangarrirako hezkuntza modu esplizituan txertatzen da 2030 Agendan, helburu horren osagai gisa, adieraziz garrantzitsua dela gainerako 16 helburuak lortzeko, garapen jasangarritako hezkuntzak gaitasuna ematen dielako ikasleei ongi oinarritutako erabakiak hartzeko eta neurri arduratsuak hartzeko, ingurumenaren osasun onaren alde eta ekonomiaren bideragarritasunaren alde, egungo eta etorkizuneko belaunaldien justizia soziala lortzeko, aldi berean errespetatuz kultura aniztasuna. Bizitza osoan landu beharreko ikaskuntza da, kalitateko hezkuntza integral eta eraldatzaile baten parte dena, eta barne hartzen dituena edukia, ingurunea, ikaskuntzaren emaitzak eta irakasteko metodologiak. Hitz batean, garapen jasangarrirako hezkuntzaren helburua da ikasleek eta herritar guztiek garatzea jasangarritasuna lantzeko zeharkako gaitasunak, haren azken helburua lortzeko: gizartea aldatzea.

1.2.3 HEZKUNTZA PROPOSAMEN BERRIA ESPARRU FORMALERAKO: HLOALO

Orain asko ez dela onetsi zen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa (HLOALO), eta hartan jasotzen dira, lehenengoz, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzko berriazko aipamenak, eta hezkuntza sistemaren printzipioen artean jasotzen du trantsizio ekologikorako hezkuntza justizia sozialeko irizpideekin, ingurumen, gizarte nahiz ekonomia arloetan jasangarritasunerako ekarpen gisa. Era berean, legearen printzipioen artean jasotzen ditu bakerako hezkuntza, giza eskubideen errespetua, bizitza partekatua, gizarte kohesioa, herrien arteko lankidetzeta eta elkartasuna, eta izaki bizidunekiko eta animalien eta ingurumenaren eskubideekiko errespetua, bereziki, oihanen eta garapen jasangarriaren balioekiko errespetua sustatuko duten balioen inguruko hezkuntza.

Oinarri horrek aukera emanen du, ondorengo lege garapenean, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza jasotzeko ikastetxeen hezkuntza proiektuetan, eta arauan islatzeko elementu bat, jasangarritasuna lantzeko bidea emanen duena, ikastetxearen ingurune hurbileko harremanetan. Artikuluetan jasotzen denez, ingurumen jasangarritasuneko eta gure biodibertsitatea babesteko lankidetzeta sozialeko kultura sustatzeko, hezkuntza administrazioek lagunduko dituzte, haien inguruko instituzioekin eta erakundeekin koordinazioan, ikastetxeen jasangarritasuna, ingurune naturalarekiko harremana eta klima aldaketaren ondorioen arabera egokitzea. Era berean, ikastetxeetarako bide seguruak bermatuko dituzte, eta joan-etorri jasangarriak sustatuko dituzte lurralde eremuetan, bizi esperientzia eta irakaskuntza iturri gisa.

Horretarako, zeharkako hainbat ekintza arautu proposatzen dira, jasangarritasunerako ingurumen hezkuntza txertatzeko bidea emanen dutenak, hezkuntza sistema formaleko etapa desberdinetako arloetan eta gaietan, eta haietan jasoko dira, besteak beste, garapen jasangarrirako hezkuntzari dagozkion ikuspegiak, edo zientzia, teknologia nahiz organizazio mailako edukien integrazioa, ikasleek garapen jasangarriarekiko eta laneko eta ingurumen arloko arriskuen prebentzioarekiko konpromisoa atxikitzen dutela bermatzeko.

1.2.4 JIH-REN ABIAPUNTUKO EGOERA¹⁴

JIH INTEGRATZEA ETA ZEHAR-LERRO GISA PLANTEATZEA POLITIKA PUBLIKOETAN ETA ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Administrazio publikoetan beharrezkoa da ahalegin handiagoa egitea JIHaren papera politika publikoetan txertatzeko. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza instituzioetan txertatzea modu heterogeneoan landu izan da, eta oro har, ez da aski egungo gizarte eta ingurumen arloko erronkei erantzuteko. Faltan sumatzen da, kasu batzuetan, plangintza estrategiko eta partekatu bat prestatzeko gaitasun handiagoa, administrazio bakoitzaren lurralde eremura egokitua.

Oro har, azken krisi ekonomikoei lotuta, denboran egonkorrak izanen ziren baliabide gutxi eta finantzazio lerro egoki gutxi esleitu izan dira, programa puntualak egitetik harago joateko eta proiektu zabalagoetan sartzeko aukera izateko, egungo klima krisiarekin egokituagoak, jardunbide berritzaileetan oinarrituak, eta politika publikoei eta estrategia globalei lotuak.

Beste alde batetik, beharrezkoa dirudi Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako estatu, erkidego edo toki mailako dokumentu estrategiko batzuk berrikusteak, azken joerak eta gogoeta kontzeptual eta akademikoak jasotzeko haietan, mende honetako gizarte eta ingurumen krisiari erantzuteko.

Era berean, koordinazio handiagoa behar da administrazio publiko desberdinen artean, bai Estatuko Administrazio Orokorraren eta erkidegoetako administrazioen artean, bai toki entitateekiko ere. Koordinazio eta lankidetzaren handiagoa behar da, orobat, entitate publiko eta pribatuen artean, eta hitzarmenak ezarri behar dira, bai sektore artean, bai sektoreen eta administrazio publikoen artean ere.

Ekimenen sustatzaile edo babesle diren entitateen eta programen garapena eramaten duten ingurumen hezkuntzako enpresen arteko komunikazio larroak ez daude aski zehaztuta. Garrantzitsua da komunikazio hori sustatzea, ebaluazio eta programazio bateratuak egiteko eta programa horien kalitatea hobetzeko.

Era berean, sektore bereko eragileen arteko koordinazioa ere indartu beharreko beste faktore bat da, ekimenen bikoiztasuna saihestu, lan sinergikoa hobetu eta ahultasunak gainditzeko laguntza bilatzeko.

Koordinazio, prestakuntza eta esperientzia trukatzeko guneak indartu behar dira. Ez da baztertzekoa, gainera, topaketa gune berriak sortzea, eta metodologia, programa, estrategia etab. berrien sorrera kolektiboa, eta loturak eratzea, sare formal eta informalak, eta oro har, koordinazioa.

JIH-REN EZAGUTZA ETA EDUKIAK HOBETZEA

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza berritzailea, erronka berriak lantzea eta trantsizio ekologiko bidezkoari laguntzera bideratua, sustatu behar da, eta horri erantzen zaio herritarren parte-hartze aktiboa sustatzeko erronka.

Bizimodu eredu jasangarriagoetara igarotzeko aldaketa eragozten duten oztopoak, izan, badira, eta beharrezkoak dira, orobat, jasangarritasuna errazten duten testuinguruak, bai pertsonen egunerokoan, bai haien laneko ingurunean ere. Garrantzitsua da ekimen testatuak sustatzea, alternatibak eskainiko dituztenak, hiri nahiz landa inguruneetan, haien gainean lan egiteko JIHtik. Aldi berean, iraganean erabilitako mezu eta ikuspegi batzuk ez dira egokitzen oraingo aldaketaren beharrekin. Arrazoi horiengatik, funtsezkoa da JIHan indartzea gai zehatzak (ekodependentzia, planetaren mugak, larrialdi klimatikoa, ekoherritartasuna), proposamen metodologikoak (proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, zerbitzu-ikaskuntza), esku-hartzeen aurreikuspenak (generoa, kultura aniztasuna, giza eskubideak, herritartasun globala edo landa mundua), eta hartzaile zehatzak (kolektibo

¹⁴ Apartatu honen edukiak Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Planetik (2021-2025) atera dira, eta aldatu dira ENEAS 2030 estrategia egokitzek.

baztertuak, adinekoak).

Era berean, ezinbestekoa da jasangarritasunaren ikuspegi globalarekin lerrokatutako ikuspuntua ematea. Ikuspuntu horri esker, klima aldaketaren eta ingurumen arazoaren arrazoi estrukturalen bilaketan eta horiek oraingo krisi sozial globalarekin duten loturen azterketan sakontzen ahal da. Egungo ekoizpen ereduaren ulermen kritikotik bakarrik eratzten ahalko dira garapenaren, ingurumen eta gizarte justiziaren eta ekitatearen arteko loturak. Hezkuntzaren ikuspegiak gehiago landu beharko luke herritarren erantzunkidetasuna, eta beharrezkoa da eragintza eta ekintza lokal eta globalera orientatzea.

Azkenik, jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzaren ikerketa oraindik hastapenetan dago, premia berrien arabera egokitutako ikerketa lerro iraunkorrik apenas duen, eta beharrezkoak dira horiek, ezagutzak eskaintzeko eta JIHaren jardunbidea berritzen eta hobetzen laguntzeko, egun aurrean dituen gizarte sarea eta auzi sorta zabala kontuan hartuta.

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMAREN ERRONKA BERRIAK

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak, hezkuntzako etapa desberdinetan, gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezarri ditu; Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, berriz, curriculumak garatu ditu, eta biek ala biek, garapen jasangarriko hezkuntzari zehar-lerro gisa eman diote bultzada. Zehazki, Lanbide Heziketan, garapen jasangarriarekin, laneko eta ingurumen arloko arriskuen prebentzioarekin eta lanbide erantzukizunarekin lotutako gaitasunak lortzea sustatzen du. Lanbide Heziketaren Modernizazio Plana lerrokatua dago hazkunde ekonomiko iraunkor, inklusibo eta jasangarria lortzeko bultzadarekin.

Beste alde batetik, Lanbide Heziketa antolatu eta integrazeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak hitzaurrean jasotzen duenez: «Lanbide Heziketako Sistema lehentasunezko lankidea izan daiteke eta hala behar dugu, bai ekonomia digitalera igarotzeko bidean, bai trantsizio ekologikoa eta klima aldaketaren aurkako borroka lan mundutik planteatzerakoan, aprobetxatuz, gainera, lanbide arlo anitzekin lotuta irekitzen diren aukerak, esaterako, isurketen murrizketak (eraikinen zaharberritze energetikoa; energia berriztagarriko instalazioak jarri eta mantentzea; biohondakinen konpostajea), klima inpaktuen egokitzapena (ur kontsumo gutxiko lorezaintza; agroekologia; hiri barruko baratzeak); eta jasangarritasunaren kultura sustatzea (ingurumen hezkuntza; aisialdi eta turismo jasangarriak; energia aurrezpen eta efizientziarako aholkularitza)».

Gainera, Printzipio Orokorren barnean (3. artikulua), azpimarragarria da «etengabe eguneratzea, arintasunez egokitzea eta produkzio sektoreetan sortzen ari diren aldaketak eta premiak aurretik detektatzeko erne egotea, batez ere, digitalizazioa, trantsizio ekologikoa, ingurumen jasangarritasuna, lurralde berrikuntza, osasuna eta pertsonen arreta bezalako gaietan».

Irakasleen etengabeko prestakuntza premiazkoa da testuinguru honetan, eta arreta berezia eskatzen du, eta hori ez ezik, sareak eta espazioak sustatzea ere, ikastetxeek eta hezkuntza komunitateek partekatu ditzaten gogoak eta ekimenak, elkarlana, lankidetzako ikerkuntza eta esperientzien eta jardunbide egoki kontrastatuen trukaketa bultzatzeko. Zentzu horretan, irakasleen urteko prestakuntza planek jasotzen dute, orain ikasturte batzuk hasita, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzari buruzko prestakuntza.

Unibertsitateak ere bere rola indartu behar du, gizartean aplikatutako ikerkuntza esparru gisa, eta funtsezko egin-kizuna du jasangarritasunaren kultura sortzeko langintzan, eta indartu behar du arazoaren gainean duen ezagutzaren komunikazioa, bere lidergoa gauzatuz, jasangarritasunaren bidean.

JIH-REN PROFESIOALEN EGOERA

JIHn ari diren profesionalen sektorearen inplikazioa ezinbestekoa izanik, haien lan egoeran egonkortasuna eta lan baldintzak hobetu behar dira, eta haien prestakuntza maila ere bai, eta alor horretako elkarleen sarea indartu behar da.

14/ DIAGNOSTIKOA

Gainera, ingurumen hezkuntzarekin lotutako lan esparru guztietan (barne direla administrazio publikoak, hezkuntza instituzioak edo ingurumen hezkuntzako ekipamenduak), langileak erakartzeko planak behar dira, trantsizio ekologiko bidezkoaren eta klima eta ingurumen larrialdiaren eskaerarekin lotuak; premia hori asetzeko zailtasunak daude, ikerkuntza, argitalpen eta foro espezifiko gutxi daudelako irakaskuntzaren jardunbideari buruz, eta gaitasun gutxi daudelako ingurumen arloko komunikazioa eta parte-hartzea sustatzeko tresnen erabileraren inguruan.

INGURUMEN EKIPAMENDUEN ETA NATURGUNEEN ERABILERA JIH-RAKO

Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzako ekipamenduak batzuetan gutxi ikusten diren baliabideak dira, gutxi erabiltzen direnak, baina potentzialtasun handia dute, prestakuntza, sentsibilizazioa, lurraldera hurbiltzea eta berrikuntza ekologiko eta soziala lantzeko. Ez ezagutze horren arrazoi izan daitezke gizartean integratu ez izana, hezkuntzaren eta zerbitzuen kalitatea zaintzeko egindako araudi espezifiko baten falta, eta horrekin batera, haien isolamendua eta koordinazio eta sinergia falta, bai beren artean, bai bestelako eragile, entitate eta espazioekiko.

Zehazki, naturgune babestuen ekipamenduetan, babestutako eremuaren plangintza eta kudeaketarako egiazko tresna gisa erabili behar da JIH, eta ez bisitariarentzat ondarearen balioak azpimarratzeko helburua duen zerbitzu gisa bakarrik.

EZAGUTZA ETA HEDAPENA SUSTATZEA ETA GIZARTEA EKINTZARA BULTZATZEA

Krisi ekologiko eta sozialak ekarri dituen egiazko erronken inguruan herritarrei informazio eskasa helarazteak mugatzen die arazoa ulertzeko, inplikatzeko eta parte hartzeko duten gaitasuna; hori bihurtu da JIHren egin-kizun garrantzitsuenetako bat, tresna berriekin eta kalitateko programekin landu beharrekoa. Funtsezkoa da JIHren hartzailak eta publikoak zabaltzea eta egoki helaraztea ingurumenari buruzko informazioa jendarte osoari, eta horien eragina areagotu behar da, trantsizio ekologikoa lantzeko helburua duten kanal berrien bitartez haien parte-hartzea erraztuz.

JIHrentzat lehia gaiztoa da, gizarte eraginari dagokionez, publizitatean produktuak saltzeko argudio engainagarriak erabiltzen dituen komunikazioak edo *greenwashing* hutsak planteatzen diona. Beste alde batetik, ez dago hitzarmenik, ez eta koordinaziorik ere, publiko handira iristeko ahal handia duten komunikazio eta informazio bide eta eragileekin. Horregatik, aliantza estrategikoak landu behar dira komunikazioaren arloan, kazetaritza eta komunikazioaren profesionalekin egin behar da lana, jasangarritasunarekin lotutako informazioa bilduko duten tresnak sortu, eta komunikabideetan eta sare sozialetan zabaltzen diren mezu engainagarrirei edo okerreari aurre egin behar zaie.

ABAGUNE EGOKIA

Jasaten ari garen klima eta ingurumen krisiak beharrezkoa egiten du, lehen esan denez, aurrekaririk gabeko ahalegina egitea gizartearen eragile guztien aldetik, baina JIHarendako abagune egokia da, besteak beste, ondoko faktore hauengatik:

- ➔ Jarduera ekonomiko berriak sustatzen ari dira, jasangarriagoak eta sozialki bidezkoagoak, eta horrek eskatzen ditu lehenagokoez bestelako kualifikazioak eta ezagutzak.
- ➔ Gizartean kontzientzia handiagoa dago egungo arazoen aurrean, eta aldaketarako norbanakoen eta kolektiboen inplikazio handiagoa eskatzen da.
- ➔ JIH aldaketarako tresna gisa sustatzen ahal duten gizarte mugimenduen hazkundera.
- ➔ Araudi eta erregelamenduetan sustatzen ari diren aldaketak, JIH aldaketa tresna gisa erabiltzeko aukera handiak ematen dituztelako.

- NextGenerationEU funtsetatik finantzaketa programa zabal bat bideratzen ari da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana aurrera eramateko, eta batez ere bidezko energia trantsizioa lantzerantz orientatzen ari dira.

1.3 | JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA GOBERNUAREN EKINBIDEAN

Hogei urte iragan dira lehenengo ENEA estrategiatik, eta begien bistan dago ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin lotutako gaiek garrantzia hartu dutela agenda politikoan, sozialean eta ekonomikoan, eta haien zehar-ardatzetako bat bihurtu direla.

Horren adibide onak dira **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda**¹⁵, Nafarroako Gobernuak 2019ko apirilean babestu zuena, haren bidez berresten baitira Garapen Jasangarrirako Helburuekiko (GJH) konpromisoak, edo **larrialdi klimatikoaren** adierazpena: Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak egindako urte horretan be-
rean^{16,17} erantzuna emateko zientzialarien kontsentsu orokorrari, hark erreklamatzeko baitu premiazko ekintza behar dela, ingurumena eta herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko.

1.3.1 INGURUMENAREKIN ETA JASANGARRITASUNAREKIN LOTUTAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategia bat prestatu denean, jasangarritasunerako hezkuntza eta kudeaketa tresna gisa ulertuta, kontuan hartu dira haren eraginak ukitzen dituen edo ukitzen ahal dituen mugarrak, planak eta programak, era desberdinetakoak izaten direnak. Ondoren laburki deskribatzen dira item horietako bakoitzaren edukiak:

JIHaren lanak barne hartzen dituen jarduketako esparruekin zuzeneko lotura duten legeak

- **5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa**¹⁸. Auzi publikoen erabakietan eta kudeaketan herritarren parte hartzea sustatzea du helburu, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko aukera bermatzea, eta orobat, politikak eta arau xedapenak prestatzeko prozesuetan eta erabakiak hartzeko bidean eragina izaten ahal duten interes taldeen erregulazioa. Gobernu Irekiaren Ataria bitarteko bat da, beharrezkoa herritarrei entzuteko, informazioa haien eskura jartzeko eta auzi publikoetan haien parte-hartzea eta inplikazioa bideratzeko.
- **Nafarroako Parte Hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea**¹⁹ politika publikoak eta haien kalitate demokratikoa hobetzeko. Parte-hartzearen ezarpenak ahalbidetzen du administrazioa modu irekiagoan, lankidetzan eta eztabaidaren bidez egitea, eta horregatik prestatuagoa, egungo errealitatearen konplexutasunari aurre egiteko.
- **Martxoaren 5eko 5/2015 FORU LEGEA, Nafarroko hirigintza jasangarria, hiri berrikuntza eta hirigintza jarduerak laguntzeko neurriak buruzkoa**. Lege horrek sustatzen du hiri berronartzea eta berrikuntza, eta horiek lortzeko neurriak ezartzea, lurzoru eraikia optimizatzeke, lurraldea okupatzeko era jasangarria delakoan, ekonomia, ingurumen nahiz gizarte arlotik.

¹⁵ https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/acuerdo_gobierno_agenda_2030.pdf

¹⁶ Nafarroako Parlamentuaren Larrialdi Klimatikoari buruzko Adierazpena esteka honetan eskuratu daiteke: <https://parlamentodenavarra.es/eu/komunikazio/nafarroako-parlamentuak-bere-egiten-du-klima-larrialdiaren-adierazpena>

¹⁷ Nafarroako Gobernuaren Larrialdi klimatikoari buruzko adierazpen instituzionala esteka honetan eskuratzeko ahal da: <https://www.navarra.es/eu/albis-teak/2019/09/25/nafarroako-gobernuaren-adierazpen-instituzionala-larrialdi-klimatikoaren-aurrean>

¹⁸ <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2018/98/0/>

¹⁹ <https://www.boe.es/buscar/pdf/2019/BOE-A-2019-5734-consolidado.pdf>

16/ DIAGNOSTIKOA

Eredu berriaren funtsezko beste osagai bat da gardentasuna eta gizartearen parte-hartze eraginkor eta egiazkoa.

- **Abenduaren 26ko 17/2020 Foru Legea, Ingurumen Eragina duten Jarduerak arautzen dituen**; haren helburua da Nafarroako administrazio publikoen esku-hartze mota desberdinak arautzea, atmosfera, ura, lurzorua, paisaia eta natura ingurunea babesteko jarduera publiko nahiz pribatu zehatz batzuek duten eraginetik, prebenitzeko eta kutsadura eta ingurumen inpaktua murrizteko. Haien helburuetako bat da herritarren parte-hartzea areagotzea, gizartea ingurumenaren babesean gehiago inplikatzeko lortzeko, eta haren 4. artikulua, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzea eta informazioaren hedapena eta eskuragarritasuna jasotzen ditu.
- **Martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa**; haren helburua da arau, erakunde eta tresna esparru egokia eratzea, klima aldaketa arintzea eta haren errealitateara egokitzea errazteko, eta energia berriztagarrietan oinarritutako karbono gutxiko energia eredu baterako bidea errazteko. Azpimarratzen du erregulatze hutsezko arauekin batera ematen diren neurri sozialek eragiten duten biderkatze efektua, eta bereziki aipatzen ditu hezkuntzaren arlokoak, klima zaintzeko eta trantsizio energetikoa lantzeko, eta ikerkuntza eta berrikuntza sustatzeko. Haren IV. kapituluak jasotzen dira informazioa, herritarren parte hartzea, ingurumen hezkuntza, prestakuntza eta ikerkuntza, garapena eta berrikuntza, eta 23. artikulua zehazki jasotzen du klima aldaketa eta trantsizio energetikoari buruzko hezkuntza.

Gainera, plan, programa eta estrategia sail bat dago, haien edukiak zuzeneko lotura duela JHren lan eta jarduketara esparruekin, eta beraz, horiek orientatu behar dute Estrategia hori. Hona hemen plan, programa eta estrategia horiek:

- **Gobernu Irekiaren I. Plana 2021-2023**. Haren helburua da harreman hurbilagoa lortzea Nafarroako Gobernuaren, herritarren eta lurraldeko eragileen artean, eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko palanka baliagarria izatea. Gobernu Irekia kontzeptuak integratzen ditu gobernantza aurreratu batek ezinbestekoak dituen osagaiak, besteak beste, herritarren parte-hartzea, gardentasuna, kontu ematea eta datu publikoak eskura izatea, eta horiekin batera, etika eta zintzotasun printzipioetatik eginen den kudeaketa publikoa.
- **Nafarroa Jasangarria 2030 Estrategia**; haren helburua da eskualdeen garapenaren plangintza estrategikoa orientatzea, jasangarritasunaren ikuspuntutik, eta horiek gobernatzeko tresna baliagarri bat eskaintzea. Helburua da politika publikoak banan-banan ebaluatzeko prozedurak lortzea, eta aurreikustea eta ebaluatzea zer ondorio dituzten jasangarritasunaren printzipioei eta balioei dagokienez, eta nola laguntzen duten eskualdeko garapen jasangarriaren eredia aurrera eramaten. NJE2030 Nafarroako Gobernuko departamentuek eginiko plan, proiektu eta estrategien bilduma bat da, eta departamentuek ere, ezinbestean, txertatu dituzte beren parte-hartze prozesuak. Izan ere, jarraipen sistemaren ebaluazioa egiteko, plan guztien plantzat hartzen ari da.
- **Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko Agenda 2030 (ECNA 2030)**. Agendaren helburu orokorrak sei dira: natura baliabideen kudeaketa jasangarria eta efizientea; energia fosilak ordeztzea berriztagarriekin; hondakinen sorrera murriztea eta haien balorizazioa handitzea; sektore publiko eta pribatuaren kontsumo arduratsua handitzea; jasangarritasunaren kultura hedatzea eta gaikuntza handitzea; eta jasangarritasuna eta kohesio soziala sustatzea. Haren tresna nagusiak dira: Nafarroako S4 Jasangarritasunerako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia; Klima-Klima Aldaketaren bide orria; 2017-2027 Hondakinen Plana; eta Hondakinei eta haren Fiskalitateari buruzko Legea. ECNA 2030 bi urteko ekintza planetan mamitzen da.

- **Nafarroako Energia Plana. 2030 Horizontea;** energiaren plangintza eta integrazioa ezartzen ditu, eta haren koordinazioa, adibidez, industria, garraio, ingurumen edo lurraldearen antolamenduaren plangintza sektorialekin. Nafarroako 2030 Energia Planak kapitulu bat du berariaz 'Komunikazioa eta herritarren parte-hartzea. Prestakuntza eta sentsibilizazioa' gaiari eskainia, 'Ingurumen hezkuntza indartzea' sentsibilizazio programarekin, eta hainbat jarduketarekin, esaterako 'Nafarroako etxeak klima aldaketaren aurrean', gure komunitatean sortzen diren isurketak murrizteak duen garrantziaz kontzientziatzeko asmoa duena.
- **Klima Aldaketaren Bide Orria (KLINA) 2018an onartutakoa.** Haren printzipioetako bat honako hau da: 'Eredu berri baterantz eboluzionatzeko kultura aldaketa partekatuz'; klima aldaketaren gaineko ezagutza landuko duten neurrien bidez, hezkuntzatik, sentsibilizaziotik eta prestakuntzatik, erantzunkidetasuna, komunikazioa eta hedapena lantzeko, erronkari buruz gizarteak duen ikuspegia hobetzeko, sentsibilizazioa handitzeko, eta azken finean, kultura aldaketa lortzeko, ingurunearekiko eta eredu sozio-ekonomiko eta energetikoarekiko harremana interpretatzeko modua aldatuko duena, modu erabakigarrian eta eraginkortasunez erantzutera orientatua.
- **AGORA KLINA plataforma:** Kotsularako eratutako parte-hartze foro bat da, hasiera batean egituratzen dena 8 lantaldetan: Tokiko Ekintza, Energia, Mugikortasuna, Nekazaritza eta Abeltzaintza, Basoak, Osasuna, Ura eta Hiri Berroneratzea.
- **Klimari eta Energiarako Alkateen Ituna;** mundu mailako ekimena da eta, horren bidez, tokiko gobernuek bere gain hartzen dituzte berotegi gasak murrizteko helburuak, eta denek ikuspegi bera hartzen dute klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko eta pobrezia energetikoari aurre egiteko. Itun horren helburua da sinergiak sortzea, ingurumenaren inguruko eragile desberdinen esperientziak eta indarguneak aprobetxatzea, aurrera egiten jarraitzeko, energia fosilen kontsumoaren eta berotegi efektuko gasen isurketen murrizketan, mugikortasun jasangarri baterantz, ekonomia zirkularrerantz eta klimaren gaineko kontzientziarantz, etxe, enpresa nahiz administrazioetan. Ildo horretatik, administrazioen arteko lankidetzak funtsezko osagaia da.
- **Emakumeek Klimaren Alde Sarea-Emakumeoklima** landu eta abiatu da emakumeek klima aldaketaren alorrean egiten dituzten ekarpenak aintzat hartu eta sustatzeko. Aukera bat da berdintasunaren eta klima aldaketaren alorreko neurriak txertatzeko Nafarroako politika publikoetan eta gure gizarteko sektore guztietan.
- **Trantsizio Ekologikorako Estrategia, Nafarroa Green.** Helburua da *NextGenerationEU* funtsaren finantzaketa eskuratzea, eta ekoizpen ereduaren aldaketa eta aldaketa sozialak bultzatzea planteatzen du, egungo larrialdi klimatikoari eta osasun krisiari erantzuteko. Jarduketarako sei ardatz biltzen ditu: energia berriztagarriak, eraikuntza efizientea eta jasangarria, landa ingurunea sustatzea eta modernizatzea, ekonomia zirkularra sustatzea, mugikortasun jasangarria eta biodibertsitatearen kudeaketa.
- **Nafarroako Hondakinen Plana (NHP 2017-2027)** 2016an onetsia, eta **Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legea**, hondakinen prebentzio eta kudeaketa politikaren oinarritzko tresnak dira. Planak 7 helburu estrategiko garatzen ditu ekonomia zirkularra sustatzeko, alegia, baliabideen erabilera efizientea; prebentzioa eta kontsumo arduratsua; etxeko hondakinen kudeaketa publikoaren gobernantza; komunikazioa eta gizartearen sentsibilizazioa; berrerabilpenerako prestatzea; hondakinen bilketa berezitu eta birziklatzea; eta aurrez tratatu gabeko deuseztatzearen prebentzioa.
- **Nafarroan elikagaiak alferrik galtzea murrizteko agenda 2022-2027** tresna eraginkor bat eskaintzeko asmoz sortu da, etxeetan nahiz ekoizpen kateetan elikagaien hondakinen sorrera murrizteko. Zehazki, agenda horren helburua da % 50 murriztea txikizkako salmentan eta etxeetan sortzen diren elikagai-hondakinak 2030erako, 2020ko kopuruen aldean, eta % 20 murriztea, 2030erako, 2020ko kopuruen aldean, ekoizpen eta hornidura kateetan sortzen diren elikagai-hondakinak.

18/ DIAGNOSTIKOA

- **Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzko Foru Dekretua** –onesteko dago- Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren ekitaldi publikoetan hondakinen sorrera prebenitzeko, haien kudeaketa hobetzeko eta ingurumen jasangarritasunari buruzko neurriak arautzea eta ezartzea. Dekretuak ekitaldietan ezarri beharreko ingurumen jasangarritasunerako neurriak, nahitaezkoak nahiz borondatezkoak, eta jarraipen eta kontrol neurriak arautzen ditu. Ontziak eta erabilera bakarreko plastikoen hondakinak prebenitzeko neurriak nahitaezkoak dira; baita saihestu ezin izan diren hondakinak bereiztea eta kudeatzea ere. Nahitaezko neurriak dira, halaber, ingurumenaren kontrolerako eta jarraipenerako neurriak, hala nola karbono aztarna kalkulatzeko eta ekitaldien jasangarritasunari buruzko txostena egitea.
- Une honetan **Nafarroako Kontratazio Publiko Ekologikoaren Plana (KPE)** prestatzen ari da, eta ekainaren 30a baino lehen onetsi beharko da, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak 19. artikuluan ezarri zuenez. Plan horrek indartzen ditu Nafarroako Gobernuaren apustua eta konpromisoa Kontratazio Publiko Ekologikoa bultzatzeko, klima aldaketari aurre egiteko eta ekonomia zirkularra bultzatzeko tresna gisa. Planteatzen diren ekintzen helburuak dira: entitate kontratatzaileetako langileei prestakuntza eta laguntza eskaintzea; merkatuan inplikatzeko KPE bultzatzeko; KPE integratzea dauden tresnetan; eta KPEn buruzko informazioa argitaratzea eta zabaltzea, lagungarria izan dadin lortu diren aurrerapenak eta inpaktuak ezagutzeko, eta gaiaren inguruan herritarrek duten sentsibilizazioa handitzeko.
- **Nafarroako uraren kudeaketa eta erabilera jasangarrirako Estrategia** (onesteko izapidean) uraren kudeaketa jasangarri baterantz aurrera egitea errazten du, ikuspegi integrala eskainiz, eta horretarako konpromisoa eta erantzunkidetasuna eskatzen dizkie eragile desberdinei: administrazioa, toki entitateak, mankomunitateak, gizarte zibila: enpresak, erabiltzaileak, talde interesdunak, bestelako erakundeak eta herritarrok oro har.
- **Nafarroako Foru Komunitateko uholde arriskuari aurre egiteko larrialdi plan berezia** uholdeei modu arin eta koordinatuan aurre egiteko Nafarroako Gobernuak eraturako ekintza jasotzen du. Haren 4. eranskinean, 'Herritarrentzako aholku gida', adierazten du –herritarrei informazioa emateaz gain– lurraldearen gaineko ezagutza eskainiko dela, herritarren kontzientziazioa eta bizikidetzaren positiboa lortzeko.
- **Ebro Resilience Estrategia**; horren helburua da lankidetzaren esparru bat eskaintzea administrazio desberdinetzat eta bestelako eragileentzat, modu solidarioan eta koordinatuan lan egiteko, Ebro ibaiaren erdialdeko tartean, uholde arriskuaren kudeaketan.
- **Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren Plan Zuzentzailea 2019-2030**. Jarduketan plana 10 ekintza ildo inguruan egituratzen da; azkenak jasotzen du ezagutza, sentsibilizazioa eta dibulgazioa, eta hezkuntza eta bidean laguntzeko kanpainak, informazio eta sentsibilizazio kanpainak eta jardunbide egokien gidak proposatzen ditu.
- **Nafarroako Azpiegitura Berdeen Estrategia**. Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak prestatutako proposamena da, oraindik onetsi gabea, eta une honetan berrikusten ari da, **Azpiegitura Berde, Konektagarritasun eta Suspertze Ekologikoen Estrategia Nazionalarekin** egokitzen den baloratzeko.
- **Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S3 Estrategia eta S4-rako trantsizio boluntarioa**. 2021eko abenduan argitaratu zen Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren 2021-2027 Estrategia, non S3-tik S4-ra igarotzen zen (Jasangarritasunerako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia). Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (S3 deituak, "Smart Specialization Strategies" ingelesezko siglengatik) garapen ekonomikorako eredu bat dira; haren arabera, baliabideak kontzentratzen dira eskualde bakoitzak lehiakortasun abantaila handiena duen arloetan. 2021-2027 aldiko aurrekontu-esparru berriak bilakaera ekarri du S3 estrategietan, eta areagotu egin da COVID-19aren ondoko fase berrian, industria

trantsizioaren kontzeptuarekin lotuz, hots, ekonomien eraldaketa, trantsizio digitalaren eta ekologikoaren eraginez. Bilakaera horrek zerikusia du, Europako estrategiek, hala nola, Horizonte Europa, Itun Berdea, Agenda Digitala eta Industria Estrategia Berria estrategiek, orain duten anbizio handiagoarekin, guztien buru dela *Next Generation EU* programa onartzea. Hala, zenbait eskualdek beren strategiari laugarren "S" bat gehitu diote, jasangarritasuna (Sustainability). **Jasangarritasunerako espezializazio adimentsuaren estrategia (S4)**; helburua jasangarritasuna hobetzea da, berrikuntzaren bidez, klima aldaketaren aurkako borrokaren helburuekin koherentea den suspertze jasangarria bilatuz. Beraz, pandemia ondoko ekonomiara egokitzeko tresna da, enpresen egokitzapena erraztuz eta agertoki berri honetan irekitzen diren aukerak ere aprobetxatuz. Horrela, Europa 2050ean klimaren aldetik neutroa izanen den lehen kontinentea izateko helburua lortzen lagundu nahi dute.

- **Nafarroa Susperitu Plana 2020-2023**. Koronabirusaren krisiaren ondorioak arintzeaz gain, planak honako ildo estrategiko hauetara bideratzen ditu bere jarduerak: ekonomia eraldatzea bidezko digitalizazio baterantz, trantsizio ekologikoa bizkortzea, lurraldea egituratzea, eta bizikidetzaren esparruan sakontzea.
- **Nafarroako Lurralde Estrategia (2005-2030)** une honetan berrikusten ari da; haren helburua da erronka hauei heltzea: lurralde oreka; lurralde arteko eta gizarte barneko arrakala digitalak gainditzea, klima aldaketari erantzutea, populazioaren zahartzea edo kohesio soziala, eredu erresilienteago bat garatuz.
- **Tokiko 2030 agenden gida** Nafarroako Gobernuko barneko parte-hartze fasean dagoen dokumentua da. Haren helburua da Nafarroako Lurraldeen errealitatea egokitzea eta koordinatzea Nafarroako tokiko jasangarritasuna ukitzen duten lurraldeko eta tokiko estrategiekin. Udal mailan, 2022ko abenduan gauzatu da 21 Agenden trantsizioa 2030 Tokiko Agendetara (nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin, GJH, lerrokatuta). 2030 Tokiko Agendaren Gidaren 10. ardatzak aipatzen du esku-hartze eta gobernantza tresnen hobekuntza, eta haren helburu zehatzen artean jasotzen ditu, besteak beste, herritarren parte-hartzea bermatzea, edo hirigintza gaiaren inguruko prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainak abiaraztea.
- **Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren Plan zuzentzaileak** (prestatzeko bidean) helburua du mugikortasunetako eta garraiorako politika bat eratzea hurrengo urteetarako (2030 bitartean). Azken xedea da Nafarroan mugikortasun jasangarriko eredu bat lortzeko bidea egitea.
- **Landa Garapeneko Programa (2014-2020)**; haren helburua da hainbat laguntza prestatzea, landa eremuko biztanleen bizi kalitatea hobetzeko, gizarte eta ingurumen eredu jasangarri baten esparruan. Toki garapen parte-hartzailea M19 neurrian jasoa dago. Toki garapenerako laguntza. LEADER finantzazioari esker, toki garapen parte-hartzaileko hainbat estrategia diseinatu dira, Nafarroako toki ekintzako lau talderekin: Galalur Elkartea, TEDER Elkartea, EDER partzuergoa eta Nafarroako Erdialdeko Partzuergoa.
- **Nafarroako Sektore Ekologikoa Sustatzeko Plana 2018-2020**. Gaur eguneko abagunean, heldu den urteetarako erronketako bat izanen da ingurumen alderdiak eta klima aldaketaren aurkako borroka politika sektorialetan geroz eta gehiago integratzea. Ekoizpen ekologikoa, nekazaritzan zein abeltzaintzan, tresna bikaina da erronka horri ekiteko nekazaritzako elikagaien sektorean.
- **Nafarroako Turismoaren Plan Estrategikoa 2018-2025**; haren asmoa da Nafarroako sistema turistikoa osoaren orientaziorako eta eraldaketarako tresna bat eskaintzea. Helburu orokorretako bat da turismo arloko lehiakortasuna zentratzea lurraldeen natura nahiz kultura ondarearen osagaietan oinarritutako segmentu eta produktuen berezitasunean, jasangarritasun eskaera zorrotz baten testuinguruan.
- **Nafarroako Ekonomia Sozialaren Plan Integrala 2017-2020**; Ekonomia Sozialaren ikuspegia jasotzen du, hau da, pertsonen garapena erraztea eta gizarte eraldatzeko konpromisoa eta ahalegina, Nafarroako garapen jasangarri bideraturiko enpresa eta ekimen ekonomikoen bidez.

20/ DIAGNOSTIKOA

- **InnovaRSE** erantzukizun sozial korporatiboko kudeaketa sistema da, Nafarroako Gobernuaren marka propioa, 2022ko abendura arte zigilua eman diena 473tik goiti enpresari. Haren helburua da erantzukizun soziala antolakundeen eta entitateen estrategian eta kudeaketan ezartzea eta garatzea jasangarritasunaren hiru dimentsio hauetan: ingurumena, gizartea eta ekonomia. Azken urteotan, Innovarsek eboluzionatu du, metodologia-familia bat bihurtu arte, beren egokitzapen espezifikoekin, haren printzipio orokorrak aplikatzen dituztenak lan autonomoan (**TAMIRSE**) edo sektore publikoan (**GobernaRSE**).
- **Nafarroako Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea (2021-2024)**. Nafarroako Gobernuak garapenerako lankidetzaren politikari ematen dion laguntza sendotzen duen konpromiso ekonomiko argi eta zehaztua jasotzen du. Sektoreei dagokienez, lehenetsunezkoak dira osasun eskubidea, landa garapen jasangarria, hezkuntza eskubidea, emakumeen ahalduntzea, eta gobernantza demokratikoa eta tokiko gizarte zibila.
- **Akitania Berria Euskadi Nafarroa AECT Euro-eskualdearen Plan Estrategikoa 2021-2027**. Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euro-eskualdeak AECTaren Plan Estrategikoa 2021-2027 prestatu du, helburu nagusiak dituela, besteak beste, jasangarritasuna, digitalizazioa, kohesio soziala eta enplegua.
- **Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoa (CAT)**. Elkarrizketa eta koordinaziorako gune gisa eratu da, mugaz gaindiko proiektuen gaietan, informazioa partekatzeko eta lurraldean dinamika aktiboak aztertzeko.
- **Klima-aldaketarako Pirinioetako Estrategia (OPCC)**. Haren helburua da jarraipena egitea eta ulertzea klima aldaketaren fenomeno Pirinioetan, lurraldeari laguntzeko haren eraginaren aurrean egokitzeko. CTPko (eta beraz OPCCko) kideak hauek dira: Andorrako Printzerria eta Akitania Berriko, Okzitaniako, Aragoiko, Kataluniako, Euskadiko eta Nafarroako Gobernuak.
- **Klima Aldaketaren Pirinioko Estrategia** klimaren aldeko ekintzarako esparru global batean kokatzen da. Pirinioak bio-eskualde menditsua da, bereziki kaltebera klima aldaketaren ondorioen aurrean, eta hor, bat egiten dute hiru estaturen zazpi politika desberdinek: bi EBko estatu kide dira, Frantzia (Akitania eta Okzitania) eta Espainia (Aragoi, Katalunia, Euskadi eta Nafarroa) eta hirugarren estatua Andorra da. Hala ere, politika horietako gehienek ez dituzte kontuan hartzen eskualdearen bi bereizgarri: Lurraldearen izaera menditsua eta mugaz gaindiko ikuspegia. Hori ikusita zehaztu da mugaz gaindiko estrategia bat klima aldaketaren inguruan, Pirinioetako eskualde menditsu osorako. Estrategia hau CTPren Batzorde Exekutiboak onetsi zuen 2021eko azaroan, OPCCren erreferenteen Batzorde Teknikoak onesten teknikoak eman ondoren, eta CTPko lurraldeetako 7 buruek berretsi ondoren, 2021eko abenduan, CTPren buruen urteko Osoko Bilkuran aurkeztu zenean. Pirinioetako klima aldaketarako proposatzen dituen erronka eta jarduketa lerroetatik hauek azpimarratzen ditugu: 12. erronka. *Klima aldaketaren aurrean herritarrek duten sentsibilizazio eta hezkuntza maila optimoak iristea; eta 12.2 jarduketa ildoak. Ekintzak sustatzea eta dibulgazioa, ingurumen hezkuntza eta Pirinioen esparruko sentsibilizazioa herritar hartzaile multzo zabal batentzat zuzendua.*
- **Pirinio Biziak Hezkuntza Sarea**; haren helburua da mendilerro guztian sustatzea eta agerraraztea Pirinioetako ingurumenerako eta garapen jasangarrirako hezkuntzaren kultura bat. Mugaz bi aldeetako 65etik goiti goitiko goitiko erakundeak eta gizarte zibileko hainbeste erakundeak (GKE) osatzen dute. Frantziatik koordinatzen du hango LPOk (*Ligue pour la protection des Oiseaux*); 45.000 kideetik goiti ditu erakunde horrek.

Dibertsitate biologikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria bermatzeko, hainbat plan eta arau tresna eratu dira, Nafarroako biodibertsitatea zaintzeko eta babesteko. Tresna horietatik nabarmentzen dira, beren garrantziagatik:

- **Nafarroako Baso Agenda 2019-2030**; xedea da talde interesdunen parte-hartzea integratzea plangintza eta erabakiak hartzeko prozesuetan, basoen kudeaketako jarduketaren maila desberdinetan, eta herritarren ekarpena sustatzea, basogintzaren esparruan. Gainera, basoen kultura garatzea bilatzen du, eta ba-

sogintzako boluntariotzako ekintzak, herritarren zientzia eta basoak zaintzea sustatzea. Basoen inguruko Komunikazio programa bat ere badu, iritzi publikoa kontzientziatzeko, basoak zaintzeko haien kudeaketa egokiak duen garrantziaren inguruan, eta basoen funtzio-aniztasunari buruz, ematen dituzten ondasun eta zerbitzuei buruz, eta garapen jasangarrirako, landa eremuen garapenerako eta pertsonek bizitzarako egiten duten ekarpenari buruz herritarrek duten ulermena eta ezagutza hobetzeko.

- **Nafarroako Ehiza eta Arrantzari buruzko Foru Legea.** Nafarroako ehizaren aprobetxamendua berezko animalien populazioetan oinarritzen da, eta baliabidearen jasangarritasun eta biodibertsitatearen zaintzarekiko bateragarritasun irizpideekin egin behar da. **Ehiza Kudeatzeko Planak eta Antolamendu Zinegetikoko Planak** jarduera zinegetikoa arautzen duten tresnak dira, Ehizari buruzko Legeak ezarritako esparruaren barruan.
- **Arrantza Antolatzeko Plan Zuzentzaileak** tresna egokiak dira arrantza baliabideak antolatu eta kudeatzeko; helburu dute baliabideen jasangarritasuna bermatzea, aprobetxamendua ingurunekeko produkzio ahalmenera egokitzeko neurriak hartuz eta arrantzaz gozatzeko aukera emanez gizarteari. **Eskualde ziprinikolaren Plan Zuzentzailea** (2017); han adierazten da herritarrek ingurumenaren arloan heztea eta biodibertsitate naturala balio bat dela ohartzea tresna bakarrak direla epe ertainean eta luzean arrain exotikoek ibaietan sortzen dituzten ondorioei aurka egiteko; horregatik, komunikazio eta kontzientziario kanpainak eginen dira, arrantzaleei eta herritarrei ohartarazteko zeinen arriskutsuak diren espezie exotiko inbaditzaileak eta zer neurri aurreikusten dituen Departamentuak haiek kontrolatu eta desagerrarazteko.
- **Aniztasun biologikoaren babes eta erabilera jasangarrirako Nafarroako 1999ko estrategia** (eguneratzeko dago); haren funtsezko oinarriak dira natur ingurunearen babesa eta aniztasun biologikoaren erabilera jasangarria. Biodibertsitatea babesteko han jasotzen diren tresna lagungarrietako bat ingurumen hezkuntza da. KBEen (**Natura 2000 Sarea**) Kudeaketa Planen kariatara hartzen diren neurrien helburu nagusia da espazioaren osotasun ekologikoa babestea, eta egungo erabilerak eta aprobetxamenduak beste batzuekin harmonizatzen saiatzen dira, esaterako, aisialdiarekin, ingurumen hezkuntzarekin edo ikerketarekin.
- **Nafarroa Ezagutu Sarea** naturagune babestuak kudeatzen dituzten entitate eta pertsonek eskaturik sortutako sarea da, ingurumen hezkuntza proposatzen duena, garapen jasangarria sustatzeko tresna gisa.
- **Nafarroako Toki Entitateen Jasangarritasunerako Sarea (NELS sarea).** Nafarroako tokiko entitateen arteko lankidetzak sustatzeko, garapen jasangarria dela helburu. Gainera, sare horrek laguntza eman nahi die toki entitate horiei, AL21 ezartzeko, eta horien jarraipena egiteko.

Badira, horiez gain, gizarte osoaren integrazioa bilatzen duten bestelako ekimenak, kontuan hartu beharrekoak, ingurumen hezkuntzako planen eta programen diseinuan. Besteak beste, hauek aipatzen ahal ditugu:

- **Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoa 2022-2027** garapen bidean dago. Plan horrek ezartzen ditu Nafarroako Foru komunitatean emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna bermatzeko aplikatu beharreko helburuak eta zeharkako neurriak. Sei urteko indaraldia du, eta barne ditu Nafarroako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egoeraren diagnostiko bat, helburu eta orientabide estrategikoen definizioa, ekintzak eta haien lehentasuna, jarraipen eta ebaluazio metodoak, eta aurrekontua.
- **Gazteriaren III. Foru Plana 2021-2023.** Dokumentua Nafarroako Gazteriaren Institutuak egin zuen, eta Auzolan izeneko ardatzean biltzen ditu hainbat arlo: asoziazionismoa, gizarte inklusioa, bizikidetzak eta generoa, boluntariotza, lurralde garapena, hizkuntza politika eta aisialdia. Bigarren ardatzean, Emantzipazioa, hezkuntza formala, hezkuntza ez formala, etxebizitza eta enplegua eta lanean hastea izeneko arloan jaso zituen. Hirugarren ardatzean, Horizonteak, osasuna, kultura, mugikortasuna, kontsumoa, kirola, eta bizitzaren jasangarritasuna arloekin lotutako ekintzak jaso zituen.

22/ DIAGNOSTIKOA

- **Nafarroako Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren Estrategia (2017-2022)**; gai horri buruz Osasunaren Mundu Erakundeak emandako gomendioen esparruan kokatzen da, eta haren asmoa da Nafarroako herritarrak zahartzarora iristea ahal den gaitasun funtzional handienarekin, eta bizi kalitate onenarekin, pertsonak mantendu daitezzen aktibo, autonomo eta independente, ahal den denbora luzeenean. Politika sektorialen gaineko ikuspegi osoa jasotzen du, arreta berezia jarriz adineko pertsonengan (Osasuna, Eskubide Sozialak, Ingurumena eta Lurralde Antolamendua, Hezkuntza, Kirola, Berdintasuna, Garapen Ekonomikoa...).
- **Nafarroako Osasun Publikoaren Plana 2022-2025**; dokumentu honetan osasuna eta prebentzioa sustatzeko ikuspegia lehenesten da, arreta berezia jarriz osasunaren alderdi sozialetan eta desberdintasunen ardatzetan: generoa, adina, klase soziala, etnia eta lurraldea, horiek baitaude herritarren osasunaren oinarrian; horrek eskatzen du, sustatuko diren politiketan, osasun nahiz bestelako sektoreetan, ekitate ikuspegia ematea. Dokumentua kokatzen da Osasun bakarra/One Health ikuspegiaren; hark zehazten du gizakien osasuna, animalien osasuna eta ingurumenaren osasuna lotzen dituen harreman estua eta elkarrekiko dependentzia, eta ezinbestekotzat jotzen du osasunaren ikuspegi holistikoa, jasangarritasunari lotua, klima aldaketaren eraginaren aurrean, Planaren ingurumenari buruzko ardatzean zehazten denez.
- **Eskolaumeen Elikadura Osasungarria Programa**. Eskolako menuak prestatzeko **Elikaduraren gidak** eta **infografia** batek jasotzen dituzte oinarriko aholkuak. Gomendio horiek bidez erantzuten zaie egungo egoeraren hiru premiei: herritarren eta, bereziki, umeen osasuna sustatzea; tokiko garapena eta nork bere hornikuntza hurbiletik kudeatzea, COVID-19ak agerian jarri zuena; eta ingurumenaren krisiari heltzea.
- **Irisgarritasunaren Plan Operatiboa 2022** Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Kontentzioan definitutako helburuekiko eta erronkekiko konpromiso sendoaren adierazpena da; Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean jaso eta zehaztu ziren, 2021ean hasitako urtez urteko plangintza-prozesu bati jarraipena emanez. Plan horrek aurreikusten dituen urratsetako bat da **Komunikazio eta ekitaldi inklusibo eta irisgarrien gida** sortzea; horrek adierazten du Nafarroako Gobernuaren borondatea, bere komunikazio desberdinetan irisgarritasuna sustatzeko, herritar guztien eskura eta era ulergarrian jasotzeko moduan egon daitezzen. Beraz, Nafarroako Gobernuaren departamentu desberdinen zerbitzura jartzen den tresna da, eta era berean, erreferentziazko tresna gisa eskaintzen da, interesa duten administrazio, enpresa edo erakunde guztiek kontsultatu ahal izan dezaten.

1.3.2 INGURUMEN HEZKUNTZA NAFARROAKO GOBERNUAK EDO HAREN LANERAKO ERAKUNDEEN BIDEZ GARATUTAKO PROIEKTU EUROPARRETAN

Ondorengo zerrendan aipatzen dira JIHrekin lotutako ekintzak jaso dituzten proiektu garrantzitsuenetako batzuk:

Proiektua	Proiektuaren lan ildo edo helburu gakoak
ERASMUS+ RURAL FEMMES	Landa eremuko emakumeei ahalduztzen laguntzeko gaikuntza eta entrenamendu programa bat sortzea eta ezartzea.
ERASMUS+ NEMOS	Hezkuntza eredu berri bat sortzea, jasangarritasunaren inguruko gaitasunak eskuratzeko zerbitzu-ikaskuntzaren bidez. Eredua elikagaiekin lotura duten unibertsitate tituluen barnean garatuko da, eta ondoren probatu, baliozkotu eta eskura jarriko da, beste titulazio batzuetara eramateko, eta unibertsitate aurreko curriculumera ere bai.

Proiektua	Proiektuaren lan ildo edo helburu gakoak
LANDA GARAPENERAKO EUROPAKO NEKAZARITZA FUNTSA BURUXKA	Elikagaien galerak nekazaritzaren arloan eragiten duen gizarte eta ingurumen inpaktua murrizten laguntzea, eta gizarte mugimendua sortzea elikagaiak alferrik galtzearen inguruan.
HORIZONTE 2020 UNISECO	Nekazaritzako ustiategientzat ekonomikoki errentagarriak diren produkzio sistemak identifikatzea eta ulertzea.
HORIZONTE 2020 NEFERTITI	Balio erantsia sortzea eragileen, nekazarien eta teknikarien arteko ezagutzen trukaketatik, berrikuntza bultzatzeko eta Europako berdinaren arteko ikaskuntza eta nekazaritzako eragileen arteko konektagarritasuna hobetzeko.
HORIZONTE 2020 SMART PROTEIN	Lekadunak sartzera labore txandaketan, nitrogenoa finkatzeko eta hondakinak sartzeko balio katean.
INTERREG ARKU ATLANTIKOIA TRAILGAZERS	Natura eta Kultura balio handiko bideen azpiegituretan inbertitzearen inpaktu sozioekonomikoa aztertzea.
INTERREG EUROPE LC DISTRICTS	Eraikuntzaren sektorean karbono isuriak murrizteko asmoz eratzten diren politikak hobetzea.
INTERREG SUDOE OPEN2PRESERVE	Europako hego-mendebaldean suteen arriskuak murrizteko kudeaketa ekonomiko jasangarrirako eredia.
INTERREG SUDOE PROMOBIOMASSE	Hego-mendebaldeko lurraldean basoen biomasa sustatzeko asmoz sortutako estatuez gaindiko lankidetzaren proiektua.
LIFE AGROGESTOR	Nekazaritzako ureztalurren zerbitzu jasangarriak garatzea, uraren gobernantza, ureztatzeko uraren erabilera efizientea eta ur-masen kalitatea bermatzera orientatuak.
LIFE AQUILA	Bonelli arranoa hedatzea mendebaldeko mediterraneoan, eta haren populazioak murrizteko joera aldaraztea.
LIFE IREKIBAI	Ibaiak suspertzea eta haien kudeaketaren eta suspertzeko esku-hartzeen gaineko ezagutza hobetzea.
LIFE EBRO RESILIENCE P1	Uholde arriskuen kudeaketa azpiegitura berdeen bidez eta egokitzeko neurrien bidez.
LIFE KANTAUERIBAI	Bizkaiko Golkora isurtzen diren ibaien eta ibai-adarren ekosistemari lotutako espezieen eta habitaten kontserbazio egoera hobetzea.
LIFE NADAPTA	Klima aldaketara egokitzeko neurriak planifikatzea eta abian jartzea.

Proiektua	Proiektuaren lan ildo edo helburu gakoak
OPCC ADAPYR	Pirinioetan klimaren inpaktuaren jarraipenak sistematizatzea eta klima aldaketara Egokitzeko Estrategia Piriniarra zehaztea.
POCTEFA ACCLIMAFOR	Pirinioetako basoak klima aldaketara egokitzea.
POCTEFA ADNPYR	Pirinioen ondarea balioan jartzea Pirinio Biziak Ingurumen Hezkuntzako Sarearen lankidetzaren bidez.
POCTEFA BICIMUGI	Eurovelo3 ibilbideak Nafarroan egiten duen tartea txertatzea hiri-gintzaren plangintzan, mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik.
POCTEFA CONECTFOR	Balio ekologiko handiko basoen biodibertsitatea eta korridore ekologikoak kontserbatzeko mugaz gaindiko.
POCTEFA NATURCLIMA	Mugaz gaindiko ekimena, naturagune babestuen kalteberatasuna lantzeko klima aldaketaren aurrean.
POCTEFA PIRINEOS LA NUIT	Gaueko iluntasun naturala hobetzea mugaldeko ekosistemetan, biodibertsitatea kontserbatzeko aldaera gako gisa.
POCTEFA RCDIGREEN	Eraikuntza eta Eraispn lanen Hondakinen ekonomia zirkularra, klima aldaketara egokitzeko estrategia gisa.
FARMING BARDENAS	Lurraldearen kudeaketa integratua garatzea, haren aprobetxamendu errentagarria eta jasangarria lortzeko, aldi berean, Errege Bardearen naturaren balio handiak diren estepako hegaztien kontserbazio egoera hobetzeko aukera emanez.

1.3.3. INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN PROGRAMA ESPEZIFIKOAK JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZARAKO ETA BOLUNTARIOTZARAKO

Azken urteetan, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren jarduera aurrera joan da, jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzari dagokionez, hainbat eremutan eta baliabide desberdinekin:

Ingurumen hezkuntzako baliabideak

- ➔ Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzarako Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eskura duen baliabide nagusia giza kapitala da. Ingurumeneko basozainak eta teknikariak dira, beraiek kontzientek izan nahiz ez izan, balioa ematen dutenak, herritarrek ingurumenaren zaintzan eta jasangarritasunean sentsibilizatzeko ezagutzak eta jokabideak transmititzeko unean. Herritarren eskaerei erantzunez, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileek hitzaldiak eta bestelako jarduerak eskaintzen dituzte, aukera izaten denean.
- ➔ Langileen aipamena egin ondoren, ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa lantzeko dauden azpiegiturak aipatu behar dira.

- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren liburutegi espezializatua; ingurumen hezkuntzari eta ingurumen, nekazaritza nahiz abeltzaintza gaietarako buruzko argitalpen katalogo zabala du eskuragarri, kontsulta edo mailegu gisa.
- Erronkariko, Otsagabiako, Irunberriko Arroiletako eta Bertizko Jaurerriko Natur Parkeko Interpretazio Zentroak; Urbasa-Andia Parke Naturalaren Bisitarien Arreta Zentroa eta Pitillasko Aintzirako Natura Erreserbako eta Las Cañas urtegiko "El Bordón" Natura Erreserbako Hegaztien Behatokiak; horietan guztietan ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa lantzen da, tokiko herritarrekin, eskolaumeekin eta bisitariekin.

Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzako urteko jarduketak eta programak

- Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzako eta boluntariotzari laguntzeko programaren asmoa da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren lana herritarrei ezagutarazteko hainbat sentsibilizazio ekintza egitea lurralde osoan barna, landa-lana egiten duten langileen bitartez.
- Ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuetarako, ingurumen boluntariotzako eta herritarren zientziako proiektuen²⁰ urteko deialdia, irabazi asmorik gabeko elkartzeentzat, Nafarroako lurraldean ingurumen gaien inguruko proiektuak aurrera eramateko.
- "Ingurumenaren Zaintzaileak" Ingurumen Sentsibilizaziorako Lehiaketa lehenengo eta bigarren mailako ikasleei zuzendua dago, eta helburua du, sormena erabiliz, eskolaumeak inplikatzeko ingurumenaren zaintzan eta haren garrantzia eta gure ekintzek natura ingurunean eta hiri nahiz landa eremuko inguruneetan dituzten ondorioak transmititzea.
- Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzan trebatzea Ingurumeneko basozainak eta teknikariak.
- "Ingurumenaren Nazioarteko eguna" eta "antzeko beste ospakizunekin"²¹ erlazionaturako jarduerak

Hezkuntza Departamentuarekin koordinatzea

Ingurumen Hezkuntza Nafarroako Gobernuak hezkuntza Departamentuaren eskumena da, baina Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia lankidetzan aritzen da, gai horren inguruan, Hezkuntza Departamentuarekin, hainbat programa eta jardueraren bidez:

- **Jasangarritasuna sustatzen duten Eskolen Nafarroako Sarea**; haren misioa da jasangarritasuna sustatzea hezkuntza komunitateko kide guztien artean, eta ingurumen gaiak txertatzea Nafarroako curriculum eta ikastetxeen kudeaketan, parte hartzea eta elkarlana sustatuz.
- Hezkuntzako materialak sortzea: aldizkariak, bildumak, eskuliburuak, foiletoak, bideoak... Berdintasun eta inklusio irudia ematea zainduz.
- Lankidetzaren irakasleen prestakuntza, ingurumenaren arloko hainbat gairi buruz.
- Hezkuntzaren esparrutik ingurumen gaiak lantzeko jardueren eskaerari erantzuteko laguntza, lehen deskribatutako jardueren gain (ingurumen gaietarako buruzko bestelako hezkuntza proiektuetan laguntzea, hitzaldi edo jarduerak egiteko eskaerari erantzutea...).
- Ekintza horien bitartez helburu bikoitza lortu nahi da. Lehenik eta behin, ingurumen hezkuntza gure Komunitatean txertatzeko laguntza ematea; eta bigarrenik, ingurumen kudeaketa eskolara hurbiltzea, haren edukiak ezagutaraziz, eta hezkuntza komunitate osoa gure ingurunearen hobekuntza inplikatzen duten ekintzak eginez.

²⁰ <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2020/155/2>

²¹ 2021eko gaia "Ekosistemak suspertzea", naturarekiko bakea adosteko premia: <https://www.unep.org/news-and-stories/speech/nature-and-solutions-it-provides-protect-and-restore-our-planet>

Bestelako lankidetzak eta jarduketak

- Ingurumen hezkuntzarekin lotutako Estatu mailako sareetan parte hartzea, besteak beste, "ESenRED (Escuelas hacia la sostenibilidad en Red)", "red estatal de centros educativos sostenibles" edo "REDEA, Red de Equipamientos de Educación Ambiental" sareetan.
- Ingurumen hezkuntzako plan eta programen prestaketan parte hartzea, esaterako, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Planean (PAEAS) edo Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Estrategia Piriniarrean (EPEAS).
- Nafarroako Gobernuaren boluntariotzako "Nafarroa+Boluntarioa" plataformari laguntzea ingurumen arloko boluntariotza jardueren garapenean.
- Pirinio Biziak Ingurumen Hezkuntzako mugaz gaindiko Sarearekiko lankidetzak, batez ere, Pirinioetako ondarea balioan jartzeko eta lankidetzako POCTEFA ADNBYR proiektuaren bidez.
- Nafarroako Liburutegien Sarearekin lankidetzan aritzea, jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzako hainbat kanpainaren prestaketan. Orain arte egindako kanpainak dira, adibidez, **Guztion mundu bat: Nafarroako liburutegiak eta 2030 Agenda**; Ur bideak, Ingurumenaren aldeko Musika, Donejakue bidearen erabilera jasangarria.
- Herritarren parte hartzerako foroetan parte hartzea, adibidez, Ebro ibaiaren Foroan, uholdeei aurre egiteko eta uholde eremuak, ura eta habitatak berreskuratzeko jarduketak egiteko.
- Nafarroako naturagune eta gune berezien Nafarroa Ezagutu Sarean parte hartzea, Naturaren Interpretazio Zentroen eta Hegaztien Behatokiaren ordezkaritza eramanez.
- Ingurumenari buruzko informazioa, kontzientzia eta sentsibilizazioa sustatzeko kanpainak.
- Dibulgazio eta hezkuntza ekintzak kolektibo zehatzekin, esaterako, ehiza eta arrantza kolektiboarekin.
- Argitalpenak (**Buletinak**, **Ingurumen** gaietako buruzko argitalpenak, etab.), baliabideak eta materialak prestatzea ingurumen hezkuntzarako.

1.3.4 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZAKO PIRINIOETAKO ESTRATEGIA

ENEAS 2030 estrategiaren prestaketan izan zuen garrantziagatik, mugaz gaindiko POCTEFA ADNBYR proiektuan –Andorra, Aragoi, Katalunia, Nafarroa, Akitania Berria eta Okzitania– egindako lana azpimarratzen dugu, han prestatu baita Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Estrategia Piriniarra (EPEAS).

Horren bidez eskaini nahi da lanerako esparru orokor bat, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren tresna balioetsiko duena, berez hezkuntzarako tresna gisa, baina horrez gain, kudeaketarako tresna gisa ere, Pirinioen lurralde jasangarritasunaren helburuen zerbitzura, ikuspegi komuna lortzeko eta eskualde arteko lankidetzak ekintzak aurrera eramatea errazteko.

EPEAS estrategiaren misioa da lurraldeen arteko koordinazioa eta ekintza bateratuak egitea erraztea, Pirinioetako mendigunea balioan jartzeko eta ingurumen hezkuntza integratzeko kudeaketan, kontserbazioa eta ingurumena hobetzeko eta ondarea balioan jartzeko tresna indartsu gisa. Jarduteko bost ildo estrategiko zehaztu dira²², gaiak/arloak/herritar hartzaileak elkarri lotuz, Pirinioetako lurraldeen hezkuntzako eta prestakuntzako ekintzen ikusgarritasuna eta eraginkortasuna sustatzeko asmoz, etorkizuneko erronkei begira.

Ilido estrategikoak:

²² Ilido estrategikoen dokumentua kontsultatu daiteke [esteka honetan](#).

- ➔ 1. I.E.: Pirinioetako kudeaketa jasangarria sustatzea, indarra emanez koordinazio dinamikei, herritarren parte-hartzeari (bizilagunak, bisitariak) eta landa eremuaren eta naturaren arteko loturak berritzeari.
- ➔ 2. I.E.: Sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko ekintzak sustatzea Pirinioetako jardueren eremu sozioprofesionaletan, batez ere turismoaren sektorean, erdigunean jarriz ingurumen balioak, biodibertsitatea eta osasuna-ingurumena lotura.
- ➔ 3. I.E.: Administrazioa/erabakiak hartzen dituztenak eta herritarrak inplikatzeko klima aldaketara egokitze-ko eta haren eraginak arintzeko ekintzetan.
- ➔ 4. I.E.: Ingurumen heziketak Pirinioen garapen jasangarrian duen eragin onuragarria balioan jartzea.
- ➔ 5. I.E.: Ezagutza komunikatzea eta partekatze.

1.3.5 NAFARROAKO INGURUMEN HEZKUNTZAKO BESTE HAINBAT ERAGILE ETA EKIMEN

Bistan denez, ingurumen hezkuntzaren arloan Foru Komunitatean egiten den guztia ez da Nafarroako Gobernutik bultzatu. Toki administrazioak, ingurumen hezkuntzako ekipamenduak (baserri eskolak, interpretazio zentroak, ekomuseoak...), profesionalen elkarte eta elkargoak, hezkuntza eta prestakuntza zentroak, enpresak, plataformak, elkarteak eta kolektiboak, guztiak ere aritzen dira ingurumen hezkuntzako ekimenak, proiektuak eta programak sustatzen, guztiak ere oso interesgarriak JIH Nafarroan bultzatu eta garatzeko.

Eta ezin utziko dugu alde batera ingurumen hezkuntzan espezializatutako enpresa eta aholkularitza taldeek egiten duten lana. Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Elkartearen inguruan biltzen dira, ENEA estrategiaren ondoren sortutakoa, eta kalitate handiko sare profesionala osatzen dute, Nafarroako ingurumen hezkuntzaren garapenean.

Gaur gaurkoz, datu eguneratuak falta ditugu, apartatu honi behar den egokitasunez heldu ahal izateko. Izan ere, garrantzitsua da, Nafarroako jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzako entitate, ekipamendu, ekimen, proiektu eta programen datu base edo inbentario eguneratu bat izatea. Arrazoi horregatik, Estrategiaren 2.1 neurrian jasotzen da 'Nafarroan JIHRako baliabide, ekimen eta programen inbentario eguneratu bat egitea'.

2/ MISIOA, IKUSPEGIA, HELBURU OROKORRAK ETA OINARRIZKO PRINTZIOAK

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren (JH) barnean jasotzen dira klima eta ingurumen larrialdiari aurre egiteko eta egungo gizarte eta ingurumen arloetan dauden erronka konplexuei heltzeko ikaskuntzak, gogoe-tak, jarrerak eta gaitasunak garatzeko helburuz egiten diren hezkuntza, komunikazio eta parte-hartze ekintza eta prozesu guztiak, genero ikuspegia kontuan hartuko duen trantsizio ekologiko bidezko baterako bidea egitea errazten digutenak²³.

Estrategiaren helburua da 2023-2030 aldian Nafarroan Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzarako gidallerroak, gomendioak, proposamenak eta ideiak eskaintzea, eta lan esparru bat ezartzea, Nafarroako Gobernuak garatu beharreko jarduketara ildo estrategikoak eta neurri nagusiak, eta inplikaturako sektore eta eragileentzako orientabideak ere islatuz.

2.1 MISIOA

Nafarroako gizarteari eskaintzea informazio eta ezagutza zorrotz, kontrastatu eta kalitatekoa, aurrean ditugun erronkei buruz, beste aldaera sozial, ekonomiko eta kultural batzuekin dituzten loturei buruz, eta pertsona eta gizarte gisa ditugun osasunean eta ongizatean eragiten dituzten ondorioei buruz ("Osasun bakarra" ikuspegiari atxikiz), erronka horiei aurre egiteko jarrerak eta gaitasunak sortzeko, jasangarritasunaren bidean aurrera egi-nez eta sakonduz.

2.2 IKUSPEGIA

Nafar gizarte informatua, gaitua, kontzientziatua eta konprometitua gizarte nahiz ingurumen gaietan, bizimodu eredu jasangarriak eraikitzeko, natura eta giza ingurunea kontuan hartuta, eta gure jarduketan ondorioak, toki mailan nahiz maila globalean.

2.3 HELBURU OROKORRAK

- Nafar herritarren informazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzea, haien parte hartze kontzientea eta kritikoa erdiesteko, ingurumen arazoei dagozkien gogoeta eta erabakitze prozesuetan.
- Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntza Nafarroako Gobernuaren politika publikoetan integratzea erraztea, funtsezko tresna baita klimaren larrialdiak eta krisi globalek eskatzen duten eraldaketa sozial, kultural eta ekonomikoa lortzeko.
- Ingurunearekin erlazionatzeko dugun moduaren aldaketa bultzatzea, jasangarritasunerako bidea sakondu eta errazteko, trantsizio ekologiko bidezkoa garatuz, eta Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza tresna eraginkor gisa erabiliz, 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko.
- Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzak erabiltzen dituen tresna sozialak baliatuz, Nafarroako Gobernuak, Estatu nahiz nazioarte mailako konpromisoekiko koherentzian, eta toki nahiz mundu mailan aurrean ditugun ingurumen erronken zailtasunari erantzunez, bultzatu behar dituen ingurumen politiken garapen eta betearazpenerako lagungarria izatea.
- Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzan integratzea genero ikuspegia, interseksionalitatea, zainke-ten etika –ezinbestekoa bizitzaren jasangarritasunerako–, eta pertsona kalteberenen arreta, herritar

²³ Definizio aldatua hemen jasotako definiziotik abiatuta: [Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Plana \(2021-2025\)](#)

guztien ordezkariak, arreta eta parte-hartzea bermatzeko, gizarte jasangarriago, bidezkoago eta berdintasunezkoago baten eraikuntzan.

- Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzari ematea despopulazioa eta erronka demografikoa, landa eremuen egoera, elikadura sistemen trantsizioa, landagune-hirigune hurbilketa, eta haien osasunarekiko inpaktua aintzat hartuko dituen ikuspegi bat.

2.4 JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK²⁴

- JIH etengabeko ikaskuntza prozesua da, testuinguru anitzetan, edozein unetan eta bizitzaren edozein alderdiren gainean, bai norberaren bai kolektiboen arloetan, eta inplikatu behar ditu instituzioak, entitate pribatuak eta ekonomia sozialekoak, eta herritarrak; hau da, gizartea oro har.
- JIHak gizarte eta ingurumen arloko auzien eta egungo garapen ereduaren ulermen egokia errazten du, informazio zintzo eta kontrastatua eskura jarritz. Gardentasuna eta koherentzia JIH efiziente eta eraginkor baten osagai gakoak dira.
- JIHak onartzen du aurrean ditugun krisien erantzunak konplexuak direla, eta ahalegin kolektiboa eta etengabea behar dutela, gogoeta, eztabaida, ikaskuntzak, ikerkuntza eta intzidentzia lortzeko.
- JIHak pentsamendu kritiko eta berritzailea sustatzen du, indarrean diren ohiturak eta egiturak aztertzen dituen, arazoak sortzeko iturri bihurtzen direnean.
- JIHak pertsonengan eragiten du arazoan konponketan esku-hartzeko duten gaitasunaren gaineko kontzientzia, eta erakusten die nola sortu ekintza positiboko alternatibak.
- JIHak tokikoa eta globala uztartzen ditu, errealitate bereko osagaiak baitira, eta planetak bere mugak dituela eta haien arabera egokitu beharrak garela kontuan hartzen du.
- Herritarren parte hartzea, sareko lana eta eraikuntza kolektiboa JIHren osagai gakoak dira.
- JIHak kontuan hartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa, intersektionalitatea eta justizia soziala, beren proposamen eta jarduketan guztietan, eta giza eskubideen ikuspegia ere bai, era horretan atxikiz 2030 Agendak atzean inor ez uzteko zabalitzen duen ideia.
- JIHak kolektibo kalteberenak atxikitzen ditu, bai eta bestelako dimentsio sozialak ere, kontuan hartu behar baitira, gizarte jasangarriago, bidezkoago, irisgarriago eta ekitatiboago baten bidean aurrera egiteko.

²⁴ Oinarrizko printzipio hauek Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Planean (2021-2025) jasotakoak ekartzen dituzte hona, aldaketaren batekin [https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/ceneam/plan-accion-educacion-ambiental/plandeacciondeeducacionambientalparalasostenibilidad2021-202508-21_tcm30-530040.pdf].

3/ JARDUKETA-ARDATZAK, HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA NEURRIAK

Estrategia honen 15 helburu espezifikoak eta 74 neurriak antolatzeko, orain gutxi dela onartutako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Plana 2021-2025 (PAEAS)²⁵ hartu da erreferentziazat; kasu honetan, helburuak eta neurriak 5 jarduketa-ardatzen inguruan biltzea iruditu zaigu egokiena:

1. ardatza | JIH txertatzea politika publikoetan
2. ardatza | Jasangarritasuna txertatzea hezkuntza eta prestakuntza sisteman
3. ardatza | JIHaren kalitatea hobetzea
4. ardatza | Esku hartzeko eszenario eta espazio espezifikoak
5. ardatza | Komunikazioa, dibulgazioa eta herritarren ekintza

Horrenbestez, JIHarekin lotutako politika publikoen koherentzia eta ulergarritasun handiagoa erraztu nahi da, administrazioaren maila desberdinetan.

1. ARDATZA / JIH TXERTATZEA POLITIKA PUBLIKOETAN

1/ ENEAS 2030 estrategiaren ezarpena, ebaluazioa eta jarraipena koordinatzea

- 1.1 Administrazioen barneko eta haien arteko koordinaziorako tresna eraginkorrak sortzea, Estrategia honen ezarpen, ebaluazio eta jarraipenerako.
- 1.2 Estrategia honen helburuak eta neurriak zehazteko eta gauzatzeko bidea emanen duten Ekintza Planak prestatzea eta ezartzea.
- 1.3 Departamentu barneko eta haien arteko espazioak eta lantaldeak sortzea, enpresa publikoen eta bestelako eragileen parte-hartzearekin, ENEAS 2030 strategiaren helburuei eta neurriei heltzen laguntzeko.
- 1.4 Estrategia honen ebaluazio eta jarraipenerako sistema eraginkorrak ezartzea, administrazio publikoak eta JIHekin lotura handiagoa duten bestelako eragile eta gizarte sektoreak integratuz.
- 1.5 Abian jartzen diren plan, programa eta proiektuetan JIHren neurrien gauzapenaren eta inpaktuaren adierazleak jasotzeko lana egitea.
- 1.6 ENEAS 2030 strategiaren ebaluazio eta jarraipena jasotzeko txostenak egitea, datuak jasoz ekintzei buruz, neurriei buruz eta iritsitako nahiz iritsi gabeko helburuei buruz.
- 1.7 Genero ikuspegia, umeen beharrak eta kolektibo kalteberen arreta aztertu eta jasotzea ENEAS 2030 strategiaren ezarpenean.
- 1.8 JIHren inguruko gaitan erkidego, estatu nahiz mugaz gaindiko lan sareetan gogoz parte hartzea.

2/ ENEAS ezarri, ebaluatu eta haren jarraipena egiteko behar diren baliabideak esleitzea.

- 2.1 Nafarroan JIH arloan dauden baliabide ekonomiko, tekniko eta giza baliabideak, eta halaber, ekimenak eta programak, jasoko dituen inbentario eguneratua egitea.

²⁵ https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/ceneam/plan-accion-educacion-ambiental/plandeacciondeeducacionambientalparalassostenibilidad2021-202508-21_tcm30-530040.pdf

- 2.2 ENEAS 2030 eraginkortasunez garatzeko behar diren giza baliabideei eta aurrekontuei buruzko diagnostikoa egitea.
- 2.3 Baliabide tekniko eta ekonomiko aski hornitzea JIH arloko programei eta jarduketei -2.2 neurrian aipatutako diagnostikoarekin bat-, Nafarroako Gobernuaren eta administrazio publiko guztien aldetik, aurrekontu arruntetatik, Estatuaren nahiz Europaren finantzaziotik, edo bestelako iturri publiko nahiz pribatuetatik sortutako finantzazioaren bidez.
- 2.4 JIH arloko politika publikoen plangintza, ezarpena eta ebaluazioa koordinatzeko egungo administrazio egiturak egokienak diren, edo egokitu beharrak diren, aztertzea.

3/ Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza (JIH) zehar-lerro gisa txertatzea Nafarroako Gobernuaren politika publikoen, planen eta proiektuen plangintzan eta kudeaketan.

- 3.1 JIH txertatzea Nafarroako Gobernuko Departamentu guztien eta haien plan, programa eta proiektuen zehar-lerro gisa.
- 3.2 JIH arloko helburuak eta jarduketak txertatzea Nafarroako Gobernutik edo haien lanerako erakundeetatik planteatzen eta gauzatzen diren politika publikoetan, eta, orobat, Gobernuak bazkide gisa parte hartzen duen proiektuetan, barne direla Europako finantzazioa duten proiektuak.
- 3.3 JIHri buruzko txostenak prestatzea eta proposamenak jasotzea, gaiarekin lotura duten kontseilu eta aholku batzordeetan.
- 3.4 Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzaren, klima larrialdiaren eta trantsizio ekologikoaren inguruko prestakuntzaren eskaintza indartzea, administrazio eta enpresa publikoetako langile guztientzat, barne direla ardura politikoak dituzten pertsonak.

4/ Nafarroako Gobernuaren plan eta programen ingurumen koherentzia indartzea eta abian jarritako neurrien hezkuntza-osagaia indartzea.

- 4.1 Jasangarritasunerako neurrien katalogo bat osatzea, haien ezarpena errazteko, instalazio publikoetan, administrazioak sortutako lanpostuetan, Nafarroako Gobernuaren proiektu, ekimen, obra eta zerbitzuetan, eta obra eta horniduren kontratazio-orrietan, eta horien barnean jasotzea JIHrako neurriak, haien bidez eman ahal izateko laguntza egokia, jasangarritasunerako neurri horiek azaldu eta ezartzeko bidean.
- 4.2 Nafarroako Gobernuko Departamentu eta lanerako erakundeak partaide dituzten plan, proiektu eta ekimenetan jasangarritasun irizpideak eta JIH arloko neurriak jasotzea.
- 4.3 Administrazio publikoetatik antolatzen diren ekitaldietan eragin okerrak murriztu eta konpentsatzeko neurriak hartzea, eta era egokian komunikatzea egindako ahalegina eta arrazoiak.
- 4.4 Jasangarritasunari buruzko memoriak egitea aldian-aldian, -barne direla kasu bakoitzean aplikatzen diren JIH neurriak-, gizarteari komunikatzeko gai horretan Nafarroako Gobernuak egiten dituen ahaleginak, eta orobat, konprometituta dauden baina egiteko dauden eginkizunak.

5/ Tokiko administrazioekin lankidetzak ildoak sortzea JIH gaietan.

- 5.1 JIH txertatzea jasangarritasunaren arloan erkidegoko administrazioaren eta tokiko administrazioen artean sortzen diren lantaldeetan.
- 5.2 Tokiko agenden egoera aztertzea eta haien prozesuetan laguntzea (21 Agendak / Hiri Agendak...)
- 5.3 Finantzaketa lerro zehatzak finkatzea toki erakundeentzat, JIH proiektuak haien esparruan diseinatu eta ezartzeko.

- 5.4 Prestakuntza ekintzak egitea, toki erakundeen gaitasunak indartzeko, JIH proiektuak eta ekimenak aurrera eramateari begira.
- 5.5 Hitzarmenak eratzea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, NELS Sarearekin eta udalez gaindiko bestelako erakundeekin, esaterako mankomunitateekin eta Tokiko Ekintza Taldeekin, ENEAS 2030 estrategian eta haren Ekintza Planetan jasotako helburuak, neurriak eta ekintzak aurrera eramateko.

2. ARDATZA / JASANGARRITASUNA TXERTATZEA HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMAN

6/ JIH indartzea hezkuntza maila guztietan.

- 6.1 Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren presentzia hobetu eta indartzea hezkuntza sistemaren maila guztietan eta ikastetxeen eguneroko bizitzan.
- 6.2 Ikastetxeetako irakasleen eta zuzendaritza taldeen etengabeko prestakuntza indartzea, jasangarritasun eta JIH gaietan.
- 6.3 JIH eta jasangarritasunarekin lotutako gaien irakaskuntza zabaltzea, dibertsifikatzea eta sustatzea lanbide heziketan.
- 6.4 JIH eta jasangarritasunarekin lotutako gaien irakaskuntza zabaltzea, dibertsifikatzea eta sustatzea unibertsitatean.
- 6.5 JIHren inguruko prestakuntza osagarria eta lanbidean hastea erraztuko duten espazio eta lankidetzak proiektuak sustatzea instituzio, enpresa eta gizarte erakundeekin.
- 6.6 JIHtik modu aktiboan sustatzea umeen eta gazteen parte-hartzea eta inplikazioa, jasangarritasun eta ingurumen gaietarako erabakiak hartzeko prozesuetan, haiek ukitzen dituzten esparruetan.

7/ Jasangarritasuna ikastetxeetan sustatzea

- 7.1 Ikastetxeen jasangarritasuna sustatzea, ikastetxeko jasangarritasun proiektuen bidez, hezkuntza komunitate osoaren parte-hartze aktiboarekin.
- 7.2 Laneko eta aisialdiko espazioetan naturaren presentzia areagotzea, transmititu beharreko mezuen koherentzia erakusteko, eta umeen eta gazteen erreferentzia zentroak izan daitezen.
- 7.3 Ikastetxeen arteko sareko lana indartzea jasangarritasun eta JIH gaietan, esaterako, Jasangarritasunerako Eskolen Sarea, CONFINT, etab.
- 7.4 Ikastetxeen eta ingurumen hezkuntzako ekipamenduen arteko lankidetzak sustatzea (interpretazio zentroak, ekipamendu pribatuak...).

3. ARDATZA / JIH-REN KALITATEA HOBETZEA

8/ JIHren programa eta ekimenen kalitatea indartzea.

- 8.1 Kalitateari buruzko dokumentuak eguneratzea JIH gaietan.
- 8.2 Aurrez adostutako kalitate irizpideak jasotzea JIH gaietan administrazio publikoetatik nahiz bestelako eragileen aldetik diseinatzen eta ezartzen diren proiektu, programa eta ekimenetan.
- 8.3 Abian jarritako programa eta ekimenen ebaluazio eta jarraipenerako tresnak sortzea, aurrez adostutako irizpideak kontuan hartuta.

- 8.4 JIH gaietako jardunbide egokiak eta esperientzia inspiratzaileak zabaltzea eta balioan jartzea, beste leku batzuetara eramatea eta han ezartzea errazteko.

9/ Jasangaritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren arloko berrikuntza eta ikerketa bultzatzea.

- 9.1 JIH gaien inguruko berrikuntza eta ikerketa sustatzeko laguntza lerro espezifikoak garatzea.
- 9.2 Hitzarmenak lantzea unibertsitateekin, ikerketa zentroekin eta bestelako erakundeekin, JIH gaien inguruko ikerketa eta berrikuntza proiektuak eta programak egiteko.
- 9.3 JIH arloko ikerketen emaitzak zabaltzen laguntzea.
- 9.4 Nafarroako Gobernuaren JIH proiektu guztietan berrikuntza metodologikoa, ebaluazioa eta jarraipena txertatzea, etengabeko hobekuntzarako tresna gisa.
- 9.5 Prestakuntzarako tresna baliagarriak sortzea, berrikuntza eta gaikuntza sortzeko sektoreko entitateetan eta profesionaletan, larrialdi klimatikora egokitzearen inguruko gaietan.

10/ JIH lantzen duten enpresa eta profesionalen sektorea indartzea eta finkatzea.

- 10.1 Nafarroan JIH gaietan ari diren enpresen eta profesionalen premien gaineko diagnostikoa egitea.
- 10.2 JIH arloko enpresen eta profesionalen sektorea sustatzea, pieza gakoa baita JIH Nafarroan garatzeko, etengabe elkarrizketa indartuz sektoreko solaskideekiko, eta administratibotik aurrera eramaten diren JIH programa eta jarduketetan lagunduz.
- 10.3 Topaketa, trukaketa, gogoeta bateratua eta sareko lana egiteko esparru espezifikoek sorrera sustatzea JIH arloko enpresen eta profesionalen artean, ikaskuntza partekatua eta etengabeko hobekuntza helburu.
- 10.4 Sektoreko enpresen eta profesionalen lana agerraraztea eta balioan jartzea erraztuko duten tresnak sortzea.

4. ARDATZA / ESKU HARTZEKO ESZENARIO ETA ESPAZIO ESPEZIFIKOAK

11/ JIHRako ekipamenduak indartzea eta finkatzea.

- 11.1 Nafarroan dauden JIH ekipamenduak hobetu eta finkatzea, eta haien lantaldeak eta JIHren tokiko erreferentzia gisa betetzen duten eginkizuna indartzea.
- 11.2 Ekipamenduen eguneratze eta hobekuntza prozesuak garatzea, bai instalazioei dagokienez, bai erabiltzen dituzten baliabideei, erakusten dituzten edukiei eta garatzen dituzten programei dagokienez ere.
- 11.3 Topaketa, trukaketa, gogoeta bateratua eta sareko lana egiteko esparru espezifikoek sorrera sustatzea JIH arloko enpresen eta profesionalen artean, ikaskuntza partekatua eta etengabeko hobekuntza helburu, diziplinarteko jarduera gisa planteatuta.
- 11.4 Programa espezifikoak ezartzea ikastetxeek parte har dezaten ingurumen hezkuntzako ekipamenduetan, publiko nahiz pribatuetan, aurrera eramaten diren jardueretan.

12/ JIHaren presentzia eta eginkizuna bultzatzea eremu babestuetan.

- 12.1 Gizarte eragileen inplikazioa eremu babestuetan indartzea, JIHRako ekintza eta tresnen bitartez, bereziki parte hartzeko prozesuak eta planak garatuz.
- 12.2 Informazio, komunikazio, ingurumen hezkuntza eta ondarearen interpretaziorako programak prestatzea natura guneentzat, bidezko trantsizio ekologikoaren eta lurraldean errotzearen ikuspegia emanez, sektore sozioekonomiko desberdinen ikuspegia kontuan hartuta.

13/ JIHren presentzia sustatzea, normalean egoten ez den espazio eta eszenarioetan.

- 13.1 JIH programak konektatzea museoeekin, kultura zentroekin eta arte eta sormen adierazpenerako bestelako espazioekin, artea eta sormena txertatzeko ingurumen eta gizarte arloko kontaera berrien eraikuntzan.
- 13.2 JIH ekimenen programazioa eta garapena bultzatzea eta sustatzea herritarrekiko kontaktuan lan egiten duten zentro, instituzio eta erakundeetan, eta ustez gaiarekiko jarrera uzkurragoa izaten duten populazio sektoreetara iristeko aukera ematen duten espazio nahiz ekitaldi espezifikoetan.
- 13.3 JIH lurraldeko lankidetzarako tresna gisa erabiltzea sustatzea, diziplina horren berezko gaitasunak erabiliz lurraldetasuna, integrazioa eta koordinazioa sustatzeko.
- 13.4 JIHren presentzia indartzea Tokiko Agenda eta Plan Estrategikoetan (Tokiko Agenda 2030, Tokiko 21 Agendak, Tokiko Hiri Agenda, eta zehar-lerro erako bestelako ekimenetan).
- 13.5 Hiri ingurunean zentratutako JIH ekimen eta proiektuen garapena sustatzea.
- 13.6 Parte hartzeko eta eztabaidatzeko tresnen garapena sustatzea, aurrez aurre ditugun gizarte eta ingurumen arloko arazo konplexuen konponbideen bilaketa kolektiboan sakontzeko.
- 13.7 Ingurumen hezkuntzako programen plangintza eta garapena sustatzea enpresa eta sektore pribatuarekin lankidetzan, funtsezko tresna baita jarduera ekonomikoek gizartean eta ingurumenean dituzten inpaktuak murrizteko, eta JIHren presentzia indartzea erantzukizun sozialeko ekimenetan, esaterako InnovaRSE ekimenean.

5. ARDATZA / KOMUNIKAZIOA, DIBIULGAZIOA ETA HERRITARREN EKINTZA

14/ JIHko ekimen, proiektu eta programen garapena bultzatzea eta laguntzea gizarte erakundeetan eta eragile sozial eta ekonomiko guztien artean.

- 14.1 JIH arloko proiektu eta ekimenak sustatzea gizarte erakundeen eta herritarren elkarrekin artean, baliabide aski eta prozedura eskura-errazak eskainiz.
- 14.2 Gaikuntzarako prestakuntza espazioak sortzea, gizarte erakundeen eta eragile sozial eta ekonomikoek gaitasunak indartzeko, JIH proiektu eta ekimenen garapenean eta sareko lanean parte hartzeko.
- 14.3 Erakundeen, kolektiboek eta entitateen arteko lankidetzak sustatzea, JIH ekimen eta proiektu bateratuak aurrera eramanez, eta haien komunikazio publikoa hobetzeko.
- 14.4 Mezenasgoa sustatzea, JIH arloan lankidetzak eta inbertsio publiko-pribatua eragiteko.
- 14.5 Herritarren zientziarako eta IKT arloko berrikuntzen aplikaziorako programak garatzea.

15/ JIH eta jasangarritasun arloko komunikazioa eta informazioa hobetzea.

- 15.1 Komunikazioaren profesionalen prestakuntza eta gaikuntza sustatzea ingurumen, jasangarritasun eta JIHren inguruko gaietan.
- 15.2 Komunikazioaren profesionalerako aliantzak eratzea, elkarlana egiteko JIH eta jasangarritasun gaien inguruan.
- 15.3 Administrazio publikoek JIH eta jasangarritasun gaietan duten konpromisoa eta jarduketak herritarrei ezagutaraztea, lan ildo horiek balioan jartzeko agenda mediatikoan eta sozialean.
- 15.4 Ekimenak sortzea eta finkatzea eta komunikazio kanalak aktibatzea JIHren garrantziaren inguruan, trantsizio ekosozialerako funtsezko tresna gisa.

- 15.5 Entzuteko kanalak aktibatzea, batez ere arreta gutxien hartzen duten populazio sektoreekiko, JIH, jasangarritasun eta trantsizio ekosozialaren gaietan herritarrek dituzten sentzibilitate, premia, eskakizun eta proposamenak jasotzeko.
- 15.6 Desinformazioari eraginkortasunez aurre egin eta datu zorrotzekin eta informazio fidagarriarekin kontrastatzeko aukera emanen duten tresnak sortzea.
- 15.7 Lankidetzako akordioak eta aliantzak sustatzea, jasangarritasun eta trantsizio ekosozialari buruzko komunikazio gaien inguruan, sektore desberdinetako erakunde eta entitateekin (kultura, kirola, aisia, turismoa...).

4/ EKINTZA PLANAK, GOBERNANTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA ETA FINANTZAKETA

ENEAS 2030 dokumentu estrategikoa da, jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzari buruzko gaietan Nafarroako Gobernuak 2023-2030 aldiaren eginen duen lana orientatzeko eta gizarte eta instituzio mailako akordio zabal lortzeko asmoz egina.

Beraz, dokumentua sortu da aldiaren behin berrikusi eta eguneratua izan dadin, denborak ezinbestez eskatuko dituen aldaketen arabera egokitzeko.

4.1 EKINTZA PLANAK

Dokumentuan agertzen diren ildoak eta neurriak ekintza zehatzagoetan islatzea aurreikusten da, eta horiek jasoko dira 2023-2025, 2026-2028 eta 2029-2030 aldiatarako Ekintza Planetan; haietan bilduko dira, zehaztasun handiagoz, aldi bakoitzean foru administrazioko unitate bakoitzak aurrera eraman beharreko jarduketak espezifikak.

4.2 GOBERNANTZA

ENEAS 2030 estrategiaren kudeaketa eta garapena Nafarroako Gobernuari dagozkio, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren bidez, haren eskumenen esparruan, hark gidatu eta sustatuko baitu Estrategian jasotako ekintzak, koordinazioa zainduz eta behar diren baliabideak eskura jarritz.

Hala ere, bai ekintzen finantzaketan eta gauzapenean, bai jarraipen eta ebaluazio prozesuan ere, Gobernuaren beste hainbat Departamentu eta enpresa publiko egonen dira inplikatuak, eta beste eragile publiko eta pribatu batzuk, aurrekontu iturrien dibertsifikazio handiagoa eta parte-hartze zabalagoa eta anitzagoa lortzeko.

Nafarroako Gobernuaren esparruan, ENEAS 2030 estrategiaren Koordinaziorako Mahai Tekniko bat sortuko da, hark ezar ditzan jarduketaren lehentasunak, Gobernuko Departamentuen ingurumen eta jasangarritasun politikak aurrera eramateko lan ildo nagusien arabera.

Mahai Teknikoaren lidergoia eta koordinazioa ingurumen hezkuntzan eskumen espezifikoak dituen administrazio unitatearen eskura izanen da. Mahai Tekniko horretatik lantalde espezifikoak sor daitezke, ekintzen ardatz eta gai multzoen arabera antolatuak. Helburua, epe ertainera, Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzean gutxienez ingurumen hezkuntzaren arloko ardura teknikoa izanen duen pertsona bat izatea da. Mahai Teknikoaren osaera eta funtzionamendua Estrategiaren funtzionamenduko lehen aldiaren zehaztuko dira, Estrategia Gobernu Erabaki baten bidez onetsi ondoren.

Horrez gain, Estrategiaren Jarraipenerako Batzorde bat sortuko da, sektore arteko topaketa foro egonkorra izanen dena, gutxienez urtean behin bilduz, JIHrekin erlazioan tutako eragile guztien parte-hartzea sustatzeko, eta ENEAS 2030 estrategiaren jarraipena eta hobekuntza lortzeko lanean laguntzeko.

Batzorde horren osaera eta funtzionamendua Estrategiaren funtzionamenduko lehen aldiaren zehaztuko dira, Estrategia Gobernu Erabaki baten bidez onetsi ondoren. Nolanahi ere, Nafarroan JIHrekin lotutako gobernu kanpoko erakundeek, enpresen eta profesionalen ordezkariak izanen dira Batzordean, eta hezkuntza sistema formalaren, Nafarroako Gobernuaren eta gainerako administrazio publikoen eta gizarte eragileen ordezkariak ere bai.

4.3 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ingurumen gaietan eskumena duen Departamentuaren ardura izanen da ENEAS 2030 estrategiaren jarraipeneko eta ebaluazioko ekintzak koordinatzea, eta horretarako baliatuko ditu Koordinazioko Mahai Teknikoa eta Departamentu bakoitzean ENEAS 2030 estrategiaren ardura izanen duten pertsonak.

Jarraipen eta Ebaluazioko Txostenak ingurumen hezkuntzan eskumena duen unitate teknikoak prestatuko ditu, eta Mahai Teknikoan eta Jarraipen Batzordean aztertu eta eztabaidatuko dira, gutxienez, Ekintza Plan bakoitzaren lan-epearen bukaeran, eta ENEAS 2030 ezartzeko aldiaren bukaeran, hurrengo aldian kontuan hartu beharreko jarraibide eta gomendioekin.

4.4 FINANTZAKETA

ENEAS 2030 strategiaren finantzaketa anitza izanen da, lehentasunez inplikatur Nafarroako Gobernuaren -Departamentuetako urteko aurrekontuen bidez- baina lekua utziz finantzaketa partekatua egiteko bestelako administrazio publikoekin, entitate pribatuekin edo hirugarren sektorearekin.

Gainera, neurrien eta ekintzen finantzaketarako, Europako finantzaketa iturriak baliatuko dira, besteak beste, NextGenerationEU funtsak, Europa Plus Gizarte Funtsa (EGF+), Eskualde Garapeneko Funts Europarra (FEDER), Erasmus+, LIFE Programa, Europa Horizontea, Interreg edo Europa Sortzailea Programa.

Eta orobat, eskatzen ahalko dira Estatuaren dirulaguntzak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak eraturakoak, edo bestelakoak, Estrategia honen helburu eta xedeekin egokitzen badira.

Alderdi horien inguruko aurreikuspenak gehiago zehaztuko dira Estrategiaren Ekintza Planetan eta Ebaluazio eta Jarraipen Txostenetan.

AKRONIMOEN ZERRENDA

ANEA	Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Elkartea
CRANA	Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa
JIH	Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza
ENEA	Ingurumen Hezkuntzaren Nafarroako Estrategia
ENEAS 2030	Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Nafarroako Estrategia
EPEAS	Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Pirinioetako Estrategia
ESenRED	Jasangarritasunerako Eskolen Sarea
IPCC	Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldea edo Klima Aldaketaren Gobernu arteko Panela, ingelesezko akronimoan IPCC
HLOELO	3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa
PAEAS	Espainiako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Plana 2021-2025
REDEEA	Ingurumen Hezkuntzako Ekipamenduen Estatuko Sarea
UNESCO	Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea Kultura

GLOSARIOA²⁶

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda ekintza plan bat da, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldekoa, eta bake unibertuala eta justizia eskuragarria indartu nahi dituena. Nazio Batuen Erakundeko kide diren estatuek onartu zuten, eta 193 estatuk bere gain hartu zuten –Espainia tartean–, NBEaren Batzar Nagusian, 2015eko irailaren 25ean.

Agenda prestatzeko bi urtez egin ziren kontsulta publikoak, gizarte zibilaren parte hartzea eta estatuen arteko negoziazioak; 17 helburu planteatzen ditu, 169 xede biltzen dituztenak, izaeraz integratuak eta banaezinak, ekonomia, gizarte eta ingurumen arlokoak. Hauek dira Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH).

Munduko pobrezia amaiara emateaz gain, besteak beste GJHek jasotzen dituzte gosea erazte eta elikadura segurtasuna lortzea; bizitza osasungarria eta kalitateko hezkuntza; genero berdintasuna lortzea; ura eta energia eskuragarriak bermatzea; hazkunde ekonomiko jasangarria sustatzea; klima aldaketaren aurkako premiazko neurriak hartzea; bakea sustatzea eta justizia eskuratzeko bidea erraztea. Garapen Jasangarrirako Estrategia 2030, Ministroen Kontseiluak onetsia 2021eko ekainean, GJHak lortzea ahalbidetuko duten neurriak eta ekintzak Espainian hedatzeko tresna da.

Jasangarritasunerako Ikastetxeak

Jasangarritasunerako ikastetxeak edo ikastetxe jasangarriak dira zentroaren jasangarritasuna lortzeko programa orokorrak eta integratzaileak garatzen dituztenak, helburua dela eskola komunitateari, eta bereziki ikasleei, gaitasuna ematea egungo erronkak ulertzeko, erantzukizunak onartzeko, konponbideak bilatzeko eta erabaki kolektiboak hartzeko, ikastetxe jasangarriagoak eraikitzen laguntzeko, eta beraz, gizartea eraldatzeko pertsona prestatuagoak lortzeko. Ikastetxe horiek, beraz, JIH bultzatzen dute ikaskuntzaren bidez eta hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzearen bidez, jasangarritasunaren balioak sustatzeko. Autonomia erkidego, probintzia edo hiri askotan daude Jasangarritasunerako Ikastetxeen Sareak, gehienetan administrazio publiko baten bultzadaz; haietan biltzen dira programa mota horiek aurrera eramaten dituzten ikastetxeak, lankidetzako ikaskuntza kolektiboko eta koordinazioko espazioen inguruan.

Herritar gaitasuna

Herritar gaitasunak laguntzen du ikasleek herritar arduratsu izan daitezen eta bizitza sozial eta zibikoan osotara parte har dezaten; kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarritzen da, bai eta mundu mailako gertaeren ezagutzan eta jasangarritasunarekiko munduko herritarra izatea lortzeko konpromiso aktiboan ere. Barne hartzen ditu alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratiko bati dagozkion balioak kontzienteki onartzea, gure garaiko arazo etiko nagusiei buruzko gogoeta kritikoa egitea eta bizimodu jasangarri bat garatzea, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena.

Ekonomia sozial eta solidarioa (ESS)

Kapitalaren logikaren aurrean (merkantilizazio gero eta handiagoa eta etekin handiena bilatzea), desberdintasun eta injustizia sozial handiko egoerak eraginez, joan den mendearen erdialdean ikuspegi berri bat sortu zen: ekonomia sozial eta solidarioa (ESS); eraikuntza sozial eta politikoa da, pertsonak eta haien lana jartzen dituena sistema ekonomikoaren erdigunean, eta merkatuak mugatzen dituena, zeregin baliagarri huts baterako, ongizate kolektibo eta planetan bizitza ugaltzea bermatzeko. Haren oinarritzko printzipioetako batzuk dira, autonomia

26 Partzialki aldatua hemen jasotako glosariotik abiatuta: [Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Ekintza Plana \(2021-2025\)](#)

eta autogestioa ez ezik, enplegu duin eta egonkorra, kontziliazioa, ekologia, lankidetzeta, feminismoa, gardentasuna eta gobernantza egokia.

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza (JIH)

Hezkuntzaren munduaren eta ingurumen eta jasangarritasunaren arloko arazoan arteko hurbilpenak urteetan izan duen eboluzioan, definizio desberdinak eman izan dira: ingurumen hezkuntza, garapen jasangarriko hezkuntza, jasangarritasunerako hezkuntza, garapenerako hezkuntza. Ez dago adostasun handirik terminologia horren inguruan, ez eta kontzeptu bakoitzaren zehaztasunen inguruan ere. Sinonimotzat erabili izan dira, edo bata zein bestea berdina, edo modu berezian, erreferentziako komunitatearen eta haren nortasun ezaugarrien arabera (Longueira et al., 2018). Nazio Batuen Erakundeak sustatzen dituen Garapen Jasangarriko Helburuak aintzat hartuta, eta ingurumen hezkuntzaren inguruan hainbat autonomia erkidegotan egindako argitalpenak eta estrategiak jasoz, Estrategia honetan erabaki da Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza erabiltzea izendatzeko, klima eta ingurumen larrialdiari aurre egiteko eta egungo gizarte eta ingurumen arloetan dauden erroka konplexuei heltzeko ikaskuntzak, gogoetak, jarrerak eta gaitasunak garatzeko helburuz egiten diren hezkuntza, komunikazio eta parte-hartze ekintza eta prozesu guztiak, trantsizio ekologiko bidezko baterantz ibiliz eta genero ikuspegia kontuan hartuz.

JIHko ekipamenduak

Erreferentzia hartuz Araceli Serantesen²⁷ lanak, JIHko ekipamendua definitzen ahal da esanez instalazio bat dela, ingurumen hezkuntzako programak garatzeko, hezitzaile profesional talde baten eskutik jarduerak egokitze gaitasuna duena, erabiltzaile talde desberdinen arabera, ahal bada tokiko herritarren parte-hartzearekin, eta ingurumen kudeaketaren eta jardunbide onen adibidea emanez.

Garapen Jasangarriko Helburuak

Ikus 2030 Agenda

ESenRED Jasangarritasunerako Eskolen Sarea

Estatuko ikastetxe (ez-unibertsitarioak) jasangarrien sarea da, administrazio publikoen ekimenez sustatua (autonomia Erkidegoa, Udalak, Diputazioak, etab.). ESenRED interes eta helburu komunak dituzten sareen sarea da, jardunbideen komunitate gisa eratzen dena, non kide guztiek duten aukera ekiteko eta erantzukizunak hartzeko berdintasun klabea, sareko lankidetzeta lana sortuz. Haren helburua da topaketa, trukaketa, lankidetzeta, gogoeta eta ebaluazioa egitea proiektu mota horien gainean, eta ikastetxe sare desberdinen arteko proiektu komun partekatuak garatu ahal izatea. ESenRED sarean elkartzen dira Espainian diren ikastetxe jasangarrien sare gehienak, eta estatuko hezkuntzaren munduko hainbat erakunde, entitate eta instituzioren laguntza izaten dute. Sareen sare hau antolatzen da Planeta Zaindu dezagun Gazteen Nazioarteko Konferentzia (CONFINT) izeneko eredu metodologikotik abiatuta.

Erresilientzia

Mehatxu, tentsio, presio edo erasoan aurrean funtzio eta prozesu klabeak eusteko gaitasuna, horretarako erabiliz erresistentzia malgutze eta eraldatze estrategiak, egoera berrietarako beharrezkoak diren egokitzapenak lortzeko.

²⁷ Serantes, Araceli (2010): Equipamentos para a Educación Ambiental en Galicia. A Coruña: Xunta de Galicia, SGEA e CEIDA (DL: C-223-2010; ISBN: 978-84-453-4876-5). Escudero, Clotilde, Miquel F. Oliver eta Araceli Serantes (koord.) (2013): Los Equipamientos de Educación Ambiental en España: calidad y profesionalización. Estudio desde el Seminario de Equipamientos de Educación Ambiental del CENEAM (OAPN). Madrid: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa (DL: M-11229-2013; ISBN: 978-84-8014-843-6). Gutiérrez, José eta Araceli Serantes (2019): «Equipamientos para la Educación Ambiental: metamorfosis de una utopía centrifugada por la máquina del tiempo» in Javier BENAYAS eta Carmelo MARCÉN (Ed.) Hacia una Educación para la Sostenibilidad. 20 años después del Libro Blanco de la Educación Ambiental, 263-298 or. Madrid: Zentroa Centro Nacional de Educación Ambiental-CENEAM (OAPN). (NIP0: 650-19-019-1).

Gizarte-ingurumena

Esapide hori erabiltzen da azpimarratzeko aldaera soziala ingurumenaren kontzepzioan txertatu behar dela, eta alde batera utzi behar dela ingurumena naturari dagokion kontua delako ideia, gizartea naturaren parte ez balitz bezala; horrek ahalbidetu du paradigma aldaketa handi bat egiteko.

Bidezko trantsizio energetikoa

Kontzeptuak adierazten du beharrezkoa dela klima eta ingumen arloko larrialdiak eskatzen digun trantsizio ekologikoa, baina ahaztu gabe zenbait esparru sozioekonomikotan, eta bereziki, populazio, lurralde eta sektore kalteberenetan, eragiten ahal dituzten kalteei erantzuna ematea. Beraz, funtsezkoa da pertsonak eta enplegu duina eta kalitatekoa trantsizioaren erdigunean jartzea, karbonorik gabeko mundu bateranzko aldaketa etapa horretan pertsona guztien eskubideak bermatuz

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**

